

# ARTISTA LIBURUAREN MATXINADA

IDEIA + AUSARDIA

---

## Proposamen praktikoak barne

Dibulgaziozko saiakera labur bat duzu honako hau, arteen, idazketaren edo argazkigintzaren zaleei eskainia batez ere. Beharbada, haien asmoa da artista-liburu formako lan propioak aurkeztea (koadernatuak edo koadernatu gabeak).

Koaderno hau bi zatitan egituratu dut, koadernatzeari lotutako ezagutza, gaitasun teknikoa eta hausnarketa kritikoa bateratzeko asmoz, labur bada ere. Lehenengo zatia liburuaren forma historikoen bilakaerari buruzkoa da, baita haren azken bertsioari buruzkoa ere: XXI. mendeko artista-liburua. Bigarrenean, berriz, tamaina, forma eta material askoko artista-liburuak diseinatu eta egiteko lan-proposamen zehatzak eskaintzen dira.

---

**LUIS BARRIOS**



**ARTISTA-LIBURUAREN MATXINADA. IDEIA + AUSARDIA**

Luis Barrios

Donostia, 2020

---

Edizioa: Luis Barrios – arteliburu21

Alaberga, 57-2º. 20100. Errenteria. Gipuzkoa

[www.encuadernacionlumar.com](http://www.encuadernacionlumar.com)

[www.arteliburu21.com](http://www.arteliburu21.com)

Lege-gordailua: D 00793-2020

---

Azalaren diseinua: Ainara Landaberea

Maketazioa: Alfredo Gil Larrinaga

Itzulpena: Ainhoa Kortaxarena

**ARTISTA-LIBURUAREN**  
**MATXINADA**  
**IDEIA + AUSARDIA**



## Aurkibidea

Hitzaurrea .....	9
LIBURUA JAIO DA .....	10
LIBURUAREN FORMA HISTORIKO NAGUSIAK ETA MATERIALAK .....	11
Buztinezko taula sumertarra, idazkera kuneiformeduna .....	11
Papirozko biribilkia. Pergaminozkoa ondoren .....	12
Kodexa, papirozkoa eta pergaminozkoa. Paperezkoa ondoren .....	13
BESTE MUGARRI GARRANTZISU BATZUK LIBURUAREN ABENTURAN .....	14
Kodex miniatua edo miniatura .....	14
Paperaren aroa hasi da .....	16
Gutenbergek berunezko tipoak eta inprenta asmatu ditu .....	16
Inkunableak .....	18
OHIKO LIBURUA, AUZITAN. ZERTZELADAK .....	19
“ARTISTA LIBURU” DIRELAKOEN AURREKARIAK .....	22
ARTISTA-LIBURUA DEITZEN DIDATE. ZER EGIN DUT NIK HAU MEREZI IZATEKO? .....	24
Nik honela ikusten dut .....	24
Inprimategian argitaratutako liburu bat "artista-lantzat" jo daiteke? .....	26
NEURONAK, LANERA! LIBURU BAT DISEINATU ETA EGINGO DUGU .....	27
KOADERNATU EZIN DEN IA EZER EZ DAGO .....	29

## IDEIA ETA PRAKTIKA ZEHATZAK

### TAILERREKO ARIKETEKIN

KOADERNATUTAKO ARTISTA-LIBURUAK: OINARRIZKO EGITURAK ETA JOSTURAK .....	32
Liburuxka bakarreko liburu malguak .....	32
Orri solteak liburu bihurtuta .....	35
Zulatutako eta jositako orri solteak .....	37
Kordelik gabeko koadernotxoek jostura .....	38

Koadernotxoak greziar erara .....	39
Bizkarra agerian duten josturak .....	41
Azal biguneko liburuak .....	43
Azal artikulatu tolesgarriko liburu eskulturak .....	45
Akordeoi formako liburuak .....	47
Azal gogorreko liburuak: bizkardunak eta bizkarrik gabeak .....	50
Eskartibanen gaineko koadernaketa japoniarra .....	54
Babes-orriak eta errespetu-orriak .....	56
ESKARTIBANAK, NEURRIRA EGINDAKO ASMAKIZUNAK .....	58
BI GORPUTZEKO OBRAK, TRIPTIKOAK ETA KARPETA BEREZIAK .....	65
ERAIKUNTZA ATIPIKOAK ETA LIBURU ESKULTURAK .....	67
MINIATURA LIBURUAK (5 x 5 x 5 cm-raino) .....	71
ESKU HARTZEA, BERRERABILTZEA, BERRINTERPRETATZEA, TESTUINGURUTIK ATERATZEA .....	73
OBJEKTU POESIA – ARTISTA-LIBURUAK .....	74
KUTXAK, KUTXATILAK, ESTALKIAK .....	76
LIBURUAREN EBAKIN MARGOTUAK, MARRAZTUAK, ESTALIAK .....	81
Erreferentzia bibliografikoak .....	84

## Hitzaurrea

Dibulgaziozko saiakera labur bat duzu honako hau, arteen, idazketaren edo argazkigintzaren zaleei eskainia batez ere. Beharbada, haien asmoa da artista-liburu formako lan propioak aurkeztea (koadernatuak edo koadernatu gabeak), baina ezezaguna eta zaila zaien eremu batean barneratzeko beldur dira.

Izan ere, artista-liburu bat egiteak badu zailtasun bat, beste arte-diziplina batzuek ez dutena: obra bat liburu artikulatu gisa egin nahi bada, haren tamaina edozein izanda ere, ez da nahikoa lan plastikoa, literarioa, fotografikoa eta abar egitea. Liburua eraikitzen jakin behar da, eta horrek esan nahi du gutxienez koadernatzeko oinarritzko teknika batzuk menderatu behar direla. Espero dut saiakera txiki honek horri buruzko ideia baliagarriak ematea.

Koaderno hau bi zatitan egituratu dut, koadernatzeari lotutako ezagutza, gaitasun teknikoa eta hausnarketa kritikoa bateratzeko asmoz, labur bada ere. Lehenengo zatia liburuaren forma historikoen bilakaerari buruzkoa da, baita haren azken bertsioari buruzkoa ere: XXI. mendeko artista-liburua. Bigarrenean, berriz, tamaina, forma eta material askoko artista-liburuak diseinatu eta egiteko lan-proposamen zehatzak eskaintzen dira.

Nire ustez, artista plastikoak ez du koadernatze-teknika sofistikatorik ikasi behar liburuari forma emateko; aitzitik, zenbait irtenbide praktiko izan behar ditu eskura, bere lana egokiro erakusteko.

Beraz, orri hauetan ez dut azaldu nahi koadernatzearen arte eta lanbideei dagozkien gaien zerrenda zehatza. Koadernatutako lan bat modu jakin batean diseinatu eta egiteko orduan kontuan hartu behar diren alderdi nagusiak bakarrik hautatu ditut, nire esperientzia oinarri, eta hori egin ahal izateko gure esku dauden aukera ugari eta tentagarrien artean aukeratzen jakiteko irizpideak.

## LIBURUA JAIO DA

“Liburu bat oparituko dizut”. Horixe esan digute. Eta segundo batez, papezko orriz osatutako liburu angeluzuzen bat marrazten da gure buruan, txikitatik ezagutzen duguna, betikoa. Irudi baldintzatua da gure garunean; oso gutxitan irudikatzen dugu bestelakorik.

Baina denboran atzera egiten badugu, beste liburu asko ikusiko ditugu, beste forma eta material batzuetakoak, planetako beste leku batzuetan eta garai desberdinetan, beste jende eta kultura batzuen eskuetan. Horixe egiten saiatuko gara hurrengo orrialdeetan.

Hasteko, galdetu diezaiogun geure buruari: zer da liburu bat? RAEn begiratu gero, hauxe da liburu bat:

1. m. Paperezko orri ugariz edo antzekoez osatutako multzo batek, koadernatuta, osatzen duen bolumena.
2. m. Obra zientifikoa, literarioa edo beste edozein motatakoa, bolumena osatzeko adinako hedadura duena, inprimatuta edo beste euskarri batean ager daitekeena.
3. m. Lan zientifiko edo literarioen eta kode eta lege luzeen zati nagusi bakoitza.

Nire uste apalean, ordea, hau izango litzateke RAErena baino definizio zehatzagoa eta oraingo errealitatek hurbilagokoa:

**Liburu bat objektu bat da, eskuz erabiltzekoa, ideia idatziak edo marraztuak kontserbatu eta transmititzekoa; horretarako hainbat bitarteko erabil daitezke: kanabera bat, luma bat, zizelkatutako zurezko xaflak, berunezko edo egurrezko tipoetan egindako letrak edo bitarteko elektronikoak... Euskarri gisa, naturan dagoen edo gizakiak egiten duen edozein material erabil daiteke: buztina, papiroa, papera, pergamina, metala, zura, pantaila likido bat, plastikoa, erretxina, etab.**

Izan ere, badira liburu asko —artista-liburuak eta bestelakoak— aipatutako material guztiekin egindakoak. Kasu honetan ere errealitateak irudimena gainditzen du.

Gure arbaso neandertalak eta sapiens primitiboak makillatzen zirenean edo hormetan, hezurretan eta abarretan margotu eta marrazten zutenean, elkarrekin komunikatzen ari ziren. Eta, beharbada, haien ondorengoei zer egiten zuten ere adierazi nahi zieten. Hala ere, besteekin komunikatzeak muga handiak zituen, haien mezuek denboran irautea ez baitzen erraza.

Kobazulo, horma, hezur eta beste euskarri gogor batzuetan egin zutenaren zati txiki batek iraun du gaur egun arte, eta horrekin goza dezakegu, baita burua nekatu ere, pinturak, urradurak eta tailak behatzen zituztenei zer transmititu nahi zieten asmatu nahian. Material bigunekin egindakoa, hala nola larrua eta zuhaitz-azala, ez da gaurdaino iritsi. Naturak ez ditu mesedeak ulertzen. Egiten zutenak izugarritzko balioa izan arren, ez zen nahikoa; haien lanak oso ondo zeuden, baina...



Denbora kontua zen orduko emakumeek eta gizonek objektu bat asmatzea, eskuz erabiltzeko modukoa, aukera ematen zuena kopiak egin, gorde eta erraz lekualdatzeko, beste pertsona batzuekin modu iraunkorrean komunikatu ahal izateko. Horretarako asmatu zuten lehen forma sofistikatua idazkera kuneiformez grabatutako buztinezko taula izan zen. Duela 6000 urte inguru gertatu zen zibilizazio sumertarrean, antzinako Mesopotamian. **Liburua jaioa zen.**

Giza espeziearen ezagutzaren metaketaren eta transmisioaren gailurra da liburua, baita XXI. mendean ere. Jakiteak aske egiten gaituenez, fanatikoak eta askotariko diktadoreak liburuaren beldur izan dira, jakin baitzekiten giza jakintza-aren tresnarik eraginkorrena dela, eta, horrenbestez, pentsamendu kritiko eman-tzipatzailearen elikagaia. Existitzen denetik, liburua debekatu, jazarri, txikitu, bonbardatu eta erre egin dute, liburutegietan edo berariaz piztutako sutan. Jazar-penezko historia horrek identitate sinboliko oso boteretsua eman dio liburuari. Zer da liburu bat? Ikusten dena eta horrek ordezkutzen duena.



A. Dureroren grabatua



Lumar

## **LIBURUAREN FORMA HISTORIKO NAGUSIAK ETA MATERIALAK**

Liburuaren 6000 urte inguruko bizitzan hiru forma historiko nagusi daudela uste da, bere garrantzia, bere ekarpen berritzailea, lurraldean duen hedapena eta denboran duen iraupena kontuan hartuta. Hauek dira, hurrenez hurren: buztinezko taula sumertarra, biribilkia eta kodexa. Beste liburu eta euskarri mota batzuk ere izan ziren, baina garrantzi txikiagokoak, aipatutako horien aldean.

### **Buztinezko taula sumertarra, idazkera kuneiformeduna**


Duela 6000 urte inguru, gaur egungo Irak-eko hegoaldean, antzinako Mesopotamian, inguru hartan ugaria zen produktu xume bat, buztina, kultur tresna indartsua bihurtu zuen zibilizazio sumertarrak. Hura izan zen liburuaren lehen forma historikoa. "Historia Sumerren hasten da", zioen Samuel Noah Kramerrek, zibilizazio honetan aditu handi batek.

Taulei forma ezberdinak ematen zizkieten (karratuak, angeluzuzenak, hexagonalak), baita neurri ezberdinak ere (zortzi zentimetrotik hasi eta askoz handiagoetaraino). Heze zeudela grabatzen ziren taulak, falka itxurarekin alakatutako kanabera edo antzeko objektuekin; hortik dator kuneiforme izena (falka-formakoa). Bi mila urte baino gehiagoz ekoiztu ziren taula horiek, eraldatuz joan baziren ere.

Sumerreko buztinaz egina da Gilgameshen Epopeia (K.a. 2500-2000), historiako lehen kontakizun literarioa, idazkera kuneiformean idatzia; edo Ugariteko ereserkia, musika notazio forma zaharrena, duela 3500 urtekoa; edo Enheduannaren idazkiak (garai hartako egile guztien artetik ezagutzen den emakumezko bakarra), duela 4300 urte ingurukoak.

XIX. mendearen azken hamarkadetara arte ez genuen izan herri sumertarraren berri. Beste kultura batzuen aztarnen bila indusketa batzuk egiten ari zirela, ustekabean azaleratu ziren Sumerreko hondakinak.

Ez dakigu, noski, nork eta nola asmatu zuen lehen buztinezko taula-liburua. Baliteke bere egileak bi neskatala izatea, buztin-gile-familia bateko alabak, eta buztinezko hondakin bigunetan kanaberekin marraztu izana, jolasean. Ipuin eder bat izan liteke.



Taula sumertarra. Faksimila. Lumar

### **Papirozko biribilkia. Pergaminozkoa ondoren**

Antzinako Egipto faraonikoa izan zen papiro biribilkiaren sorlekua, duela 4500 urte inguru. Hauxe dugu liburuaren bigarren forma historikoa.

Elaboratzeko erabiltzen den lehengaia basa-ihia bat da, ibaiertzetan eta Nilo ibaiaren deltan ugaria dena, enbor trianguluarrekoa eta zenbait metroko altuera izan dezakeena. Horiek egiteko, xafla mehe batzuk mozten dira labanaz; berehala mazoekin kolpatzen dira edo arrabilekin ijezten dira, eta elkarren artean gurutzatuta jartzen dira orriak osatzeko. Ondoren, prentsatu eta lehortzen jartzen dira.

Biribilkia, muturretatik itsasten da itsasgarri batez, nahi den luzera lortzeko behar den orri-kopurua elkartuz. Lehen biribilkiek 30 zentimetroko altuera ere

izan zezaketen, eta metro gutxi batzuetatik 20 metro edo gehiagorainoko luzera. Biribilkiaren muturrak egurrezko, hezurrezko, marfilezko eta abarrezko arrabol batzuei eusten zitzaizkien, liburuaren nerbioari egonkortasuna eta erresistentzia emateko eta errazago irakurtzeko.

Alexandriako liburutegi ospetsua (K. a. III. mendea) ez zen hain bikaina izango ezin konta ahala papirozko biribilki izan ez balitu. Historialari batzuen arabera, ehunka mila ale utzi zituzten haren apalategietan.

Ondoren, papiro, zeta eta pergaminozko biribilkiak ere egin ziren. Papiro biribilkia izan da, orain arte, denboran gehien erabili den liburu forma; XI. mendean ere objektu baliotsu bezala erabiltzen zen. Gaur egun jarraitzen dute ekoizten papiroa, baina ez liburu bihurtzeko.

Papiroak hamaika abantaila zituen, buztinezko taularen aldean: arintasuna, erabiltzeko eta biltegitratzeko erraztasuna, idazteko leku gehiago, koloreak erabiltzeko aukera, etab. Baina zenbait ahulgune zituen (bereziki pergaminoarekin, ondoren erabili zen materialarekin, alderatuz gero): alde batetik baino ezin zen idatzi (*anopistografikoa*), hezetasunak kalte handia egiten zion eta ezin zen harraskatu gainean berriz idatzi ahal izateko.



Papiroa. Lumar



Aniko papiroa. K. a. 1300

### **Kodexa, papirozkoa eta pergaminozkoa. Paperezkoa ondoren**

Kodexera iritsi baino lehen, erromatarren taulatxoetatik igaro behar dugu, haien aurrekari zuzena izan baitzen. Taulatxo hauek egurrezkoak ziren, angeluzuzenak, argizariz edo igeltsuz betetzen zen zulo batekin, eta ezten batekin idazten zen haien gainean. Berriz idazteko, argizaria edo igeltsua harraskatzen zuten. Liburu bat egin nahi zenean, zenbait oholtxo elkartzen ziren, zulo batzuetatik pasatzen ziren kordelen bidez (liburu baten bizkarra izan daitekeena). Hortik dator diptiko izena, bi zirenean; triptiko izena, hiru zirenean, eta abar.

Beste eremu geografiko eta kultura batzuetan ere erabili ziren taulatxoak, banbuz eta beste lehengai batzuez eginak eta teknika desberdinekin artikulatuak.


Kodexak I. mendean hasi ziren egiten. Liburuaren hirugarren forma historiko hori jostorratzez eta kordelez jositako pergaminozko koadernotxoek osatzen dute. Pergaminoa, dirudienez, K. a. II. mendean hasi ziren ekoizten, Pergamo hirian, gaur egungo Turkian. Batez ere ahuntz, ardi edo txahalaren larruz osatua dago (finena eta preziatuena *bitela* da, jaio gabeko txahalaren larrua), eta horregatik du kolore zurixka berezi hori. XII. mendetik aurrera, paperezko

kodexak ere egiten zituzten. Kodexa da gaur egun egiten dugun koadernaketaren jatorria.

Eskuizkribua izaten da beti. Idazteko hegazti-lumak eta kanabera-kalamuak erabiltzen dira. Bere formatua angeluzuzena da, eta, kostu txikiko liburu bat bada (gehienak), pergaminozko estalki bigun batekin babestua dago. Lan garestiagoa bada beste larruazal mota batez estaltzen da, edo zurezko estalkiekin, baita marfilezko estalki landuekin eta urrea eta zilarrarekin. Lanketa dotorea dute, eta batzuek harribitxien inkrustazioak dituzte, goi-mailako elizgizonentzat, nobleentzat edo errege-erreginentzat direnean.

Kodexak ez zuen azkar ordezkatu papirozko biribilkia; pixkanaka baztertu zuen, eta mende askotan bi liburu motak erabili zituzten. Hala ere, eta pergami-noaren ekoizpena papiroarena baino askoz garestiagoa izan arren, hainbat abantaila zituen honekin alderatuta: bi aldeetatik idatz zitekeen (*opistografikoa*), askoz ere erresistenteagoa zen eta, obra haiek idazterakoan ohikoa zenez, urratu egin zitekeen gainean berridazteko (*palimpsesto*).

Kodexa gaur egungo liburuaren aurrekari zuzena da, bere arkitekturari dagokionez: forma angeluzuzena, hariz jositako koadernotxoak eta estalki malgu bat edo babesten duten estalki gogor batzuk ditu. Ia ez dago aldaketarik funtsean; alde nabarmenak daude osagarrietan, ordea: materialen barietate agortezina dugu, baliabide teknologiko ahaltsuak ditugu, eta eraikuntza-teknikak hobetu ditugu. Baina egitura bera da funtsean. Hau askoz hobeto ulertzen da liburuak eskuz koadernatzen direnean.



Kodexa. Paperezko orriak eta pergaminozko estalkia. Lumar

## **BESTE MUGARRI GARRANTZISU BATZUK LIBURUAREN ABENTURAN**

### **Kodex miniatua edo miniatura**

Ohikoa da kodex edo eskuizkribu miniatu, ilustratu, argiztatu edo miniatura deitzea obra hauei, termino baliokideak balira bezala, baina ez dira baliokide. Eta nahasmen hori argitzea komeni da. Kodex oro, xume nahiz dotore, eskuizkribu bat da, baina eskuizkribu oro ez da kodex bat, hau da, liburu bat. Hurrengo lerroetan liburu miniatua edo miniatura izeneko liburu kodexa aipatu nahi dut, definizioz ilustrazioak eta miniaturak dituen. Miniatua: margoetan aplikatzen zen


minioaren (*minium*) gorritik eratorria; miniatura, ilustrazio oso delikatu eta txikiengatik.

Liburu haiek teknikoki oso konplexuak zirenez, lan eta espezialitateen dibertsifikazio handia ezarri behar izan zen, haien ekoizpena egingarria izan zedin, eta lan horietako profesionalek ikasketa zorrotzak egin behar izaten zituzten. Espezializazio horretan, askotan, liburua osatzen zuten material guztiak fabrikatzen zituzten (pergaminoak eta beste larru batzuk ontzea, estalkiak, tintak eta pinturak, gessoa...), baita zenbait tresna eta lanabes ere (pintzelak, hegazti-lumak, kanaberak, karrakagailuak). Tresna horiek *scriptorium* deituriko tailer mitikoetan erabiltzen zituzten amanuarrek: kaligrafoak, miniaturistak (irudiak marrazten zituzten), argizatzaileak (kolorea aplikatzen zuten), krisografoak (urrea aplikatzen zuten).

Lehen aipatu ditudan liburu kodex honen egiturak antzinagoko kodex berberak dira oraindik ere, denboraren poderioz aldatu diren xehetasunak izan ezik. Aldaketa nabarmenak, ikusgarriak, agertzen dira, aldiz, diseinuen, kaligrafien, pinturen eta ilustrazioen exekuzio bikainean, urrezko ogiaren erabilera barne, baita estalkietako apaingarri aberatsetan ere. Egoera hartan bazen paradoxa handi bat: boterea eta aberastasuna izanik ere irakurtzen ez zekiten pertsonentzat ziren obra horietako batzuk. Erdi Aroko libururik harrigarriena eta eskurazinenena zen.

Hasieran, monasterioetan egiten ziren obra horiek. Erljio-liburuak ziren nagusi, baina baziren zientziari, historiari eta literaturari buruzko beste liburu batzuk ere. Geroago hasi ziren antolatzen liburu-artistauen tailer profanoak, beste gai batzuk jorratzen zituzten lanak sortzen zituztenak, eta, aldi berean, bezero mota gehiago, gora egiten ari zen burgesiatik zetozenak. Kodex miniatuen ekoizpenak ia Europa osoan jarraitu zuen Gutenbergen inprenta agertu zen arte.

Ezagutzen diren kodex zaharrenetako batzuk hauek dira: *Codex Argenteus* edo "Zilarrezko Biblia" (Italia, VI. mendea); *Durrowko Liburua* —*Book of Durrow*— (Ingalaterra edo Irlanda, VII. mendea); *Kellseko Liburua* -*Book of Kells*- (800. urte ingurua, Irlanda) eta *Donemiliagako Dohatsua* edo *Lehena* (Donemiliaga, 920.-930. urtea). Gogora dezagun kodexak pergaminozkoa izaten jarraitzen zuela.



Scriptoriuma

## Paperaren aroa hasi da

Landare-zuntzezko papera ere sekulako asmakizuna izan zen, ordura arteko pergaminozko liburuen ekoizpena erabat irauli zuena.


Dakigunez, papera Txinan asmatu zen K. a. 150. urte inguruan, eta Islamaren lurraldeetan ere fabrikatzen zen VIII. mendetik aurrera. Batez ere kotoizko eta kalamuzko zuntzez osatzen zen (haiek ziren gustukoenak eta baliotsuenak), baita masustondoak, banbuz, lihoz, jutez eta gari-zurtoinez ere.

Papera fabrikatzeko teknologiaren ezagutzak milurteko bat baino gehiago behar izan zuen Europara iristeko, zehazki, Xativara (Valentzia), 1150. urtean. Idatzienez, txinatarren preso izan ziren arabiar batzuek sortu zuten herri horretan Europako lehen paper-errota.

Hemen, kotoia, lihoa, espartzua, kanabera eta beste landare-zuntz batzuekin egindako papera, eta, ondoren, trapu birziklatuarena, askoz errazagoa eta merkeagoa zen pergaminoarena baino. Horregatik, denboran zehar, azal hori hobetsi zuten. Hala ere, gure pentsamoldeari arrotz samarra iruditu arren, aldaketa hori oso astiro gertatu zen: Veneziara XIII. mendean iritsi zen, Alemaniara XIV.ean, Ingalaterrara XV. mendean.

Bere fabrikazio prozesua artisautzakoa izan zen paper jarraitua fabrikatzeko makina agertu zen arte. Louis Nicolas Robert frantziarrak patentatu zuen XVIII. mendeko azken hamarkadan.

Mendebaldean erregistratutako paperik antzinakoena arabiar jatorriko 38 orri dira, Brebiarioa eta Meza Liburu Mozarabiarra izeneko kodexaren zati direnak. 1036. urtea baino lehen idatzi zuten kodex hori, eta pergaminozkoa eta paperezkoa da. Burgosko Santo Domingo de Siloseko monasterio beneditarrearan dago.



Paper-zuntzak forman

## Gutenbergek berunezko tipoak eta inprenta asmatu ditu

**Johannes Gutenbergek** (1399-1468, Mainz, Alemania) gizadiaren kultura idatziaren ekoizpenerako dugun asmakizun handienetako bat egin zuen. Bere jenialtasuna, 1445-1450 bitartean, **berunezko letra soltez, tipoz, osatutako alfabetoak egitea izan zen** (aleazio bat, hain zuzen ere).

Gainera, galdaketa-teknika sofistikatu bati esker, tipoak seriean ekoizten ziren, aldeztatik aurretik beraiek fabrikatutako altzairuzko molde batzuetan. Testu bat inprimatzeko xafra bat egiteko, testua eskuz egiten zen, letraz letra, alderantziz,

euskarri batean (kaxa); xafla horrekin, tindatu ondoren, papera prentsan inprimatzen zen. Teknologia honekin, azkenean, liburu tirada handiak argitaratu zitezkeen, elkarren berdinak, denbora gutxian eta eskuizkribuak baino askoz baxuagoak ziren prezioetan.

Ez zen lehen aldia antzeko zerbeit egiten saiatzen zirela. Txinan, X. mendean, egurrezko karaktereak eta sutan gogortutako buztinezkoak erabiltzen hasi ziren; dirudienez, Korean ere saiatu ziren XIV. mendean, baina asmakizun horietako batek ere ez zuen iraun. Tipoa bigunak ziren eta erraz hausten ziren. Ez dago Gutenberg maisuaren metalezko tipoekin konparatzerik.

Gutenbergek eta bere artisau taldeak ahalegin eskerga egin zuten. Bost urtez, gutxi gorabehera, lantegian bizi eta lo egin zuen taldeak. Lehenik alfabetoko letra guztiak diseinatu behar zituzten, ondoren altzairuzko moldeak egin, deformatu gabe tirada handiak jasateko moduko aleazio metalikoak probatu... Hala, probaz proba, porrotez porrot, azkenean bilatzen zutena aurkitu zuten. Bestalde, papearak inprimatzeko lana ere ez zen erraza izan taldearentzat; azkenean, tipo metalikoak zituzten, baina ez zuten prentsarik. Asmatu egin behar izan zuten, eta asmatu egin zuten, mahatserako prentsa bat egokituz.

Gutenbergen inprentaren asmakuntza benetako iraultza izan zen kultura idatziaren ekoizpenean eta hedapenean. Liburuek ez zuten zertan eskuizkribuak izan; liburua serie handietan ekoizten zen, azkar eta merkeago. Hori dela eta, biztanleriaren maila baxuagokoek ere eskuragarri zuten; inprimatze tipografikoaren teknologia berriaren berezko arte eta lanbideen garapen handia gertatu zen; inprimategiak eta liburuen edizioak ugaritu egin ziren.

Ziur dakigu inprimatutako lehen liburua, 1452an egiten hasi zena, "42 lerroko Biblia" izan zela (honela deitua, bere orrialde guztiek 42 testu lerro dituztelako). Gutenbergen tailerrean inprimatu zuten, hain zuzen ere.

Gutenbergen inprentaren agerpenak eragin handia izan bazuen ere, ez dugu ahaztu behar eskuz idatzi gabeko lehen liburu inprimatuak xilografikoak zirela; hau da, zizelkatutako zurezko xafla eta tipoen bidez inprimatzeko teknika jarraituz eginak. Badirudi prozedura hau Txinan erabiltzen zela K. a. VI. mendean. Alemanian, 1430etik aurrera, Europako lehen liburu xilografikoa argitaratu zen: *Biblia Pauperum* (behartsuen biblia).



Berunezko tipoak

## **Inkunableak**

Inkunable (latinez *incunabula*, sehaskan) deitzen zaie inprentan 1450-1500 bitartean argitaratutako liburuei, XVIII. mendean hedatzen hasi zen konbentzio baten arabera. Hau da Gutenbergen asmakuntzak piztu zuen ospe eta mirespenaren beste emaitza bat.

50 urteko aldi hori aukeratzea erabaki arbitrarioa da azken urteari dagokionez (1500), bikainen klubei kide izatera igarotzeko muga-lerroa ezartzen baitu. Zergatik data hori eta ez beste bat? Besterik gabe, proposamenak arrakasta izan zuelako; ez da azalpen landuagorik bilatu behar. Izan ere, inkunable kalifikazioak ez dio inolako baliorik gehitzen ez kentzen delako obrari, ez edukietan, ez osagai fisikoetan. 50 urte horien artean sortutakoa dela esan nahi du, besterik gabe. Produktu miresgarria edo oso kaskarra izan daiteke, baina inprentaren sorrera-urteetan jaio da.

Iberiar Penintsulako prentsa tipografiko batetik atera zen lehen inkunablea "Aguilafuenteren sinodala" izan zen. 1472an Segovian argitaratu zen, Heidelbergeko Juan Parix alemaniar jatorriko inprimatzailearen tailerrean.

## **Laburbilduz**

Beste gai batzuei heldu aurretik, baliagarria izan daiteke hitz gutxitan gogoratzea, orain arte ikusitakoaren laburpen gisa, liburu-objektua sortu zenetik gaur arte gertatu diren aldaketak:

- Sumertar taula, idazkera kuneiformeduna. Buztinezkoa eta askotariko neurrietakoa.
- Egiptoko biribilkia. Papirozkoa (eta gero pergaminozkoa). Eskuizkribua.
- Kodexa. Koadernatua. Papirozkoa eta pergaminozkoa lehendabizi, eta paperezkoa edo mistoa ondoren. Angeluzuzena, oso neurri aldakorrekoa. Eskuizkribua.
- Kodex miniatua edo miniatua. Batez ere pergaminozkoa. Aurreko kodexaren egitura berdintsukoa, baina modu aberatsean argizatua.
- Lehen liburu inprimatua: liburu xilografikoa. Angeluzuzena. Koadernatua.
- Gutenbergen inprimategian inprimatutako liburua, berunezko tipoekin. Inkunableak. Koadernatua. Ondorengo liburuak herentzia zuzena dira.
- Eta orain XXI. mendeko artista-liburuarekin gaude.

**Hauek dira gure sustriak. Hemendik gatz.** Aurrez, maitatu beharra dago liburua, artista-liburua balioetsi ahal izateko. Horixe da egia.



## OHIKO LIBURUA, AUZITAN. ZERTZELADAK

Inprentako ohiko liburuaren tipologiak hainbat mendetan zehar ia aldatu gabe iraun du. Asmakizun ikaragarria da, zalantzarik gabe, baina ez da nahikoa XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako abangoardia historikoek bilatzen dituzten adierazpideetarako. "Betiko" liburua zalantzan jartzen hasten da, eta liburu berri bat bilatzen hasten da, tresna baliagarriagoa izan daitekeena korrante poetiko eta artistiko berriak hedatzeko.

Jarraian azalduko ditugun aipamenek gaiari buruzko ikuspuntuen aniztasuna islatzen dute:

**El Lissitzky** (1890-1941): "Agian liburu barruko lanak oraindik ez du forma tradizionala eraitsi, baina ikusten jakin behar da joera hor dagoela. Liburua artelan bihurtzen da, monumentalena. Jada ez dute liburuzaleen esku leunek laztantzen; ehunka mila pertsonak heltzen dute". (Giorgio Maffeik aipatua "¿Qué es un libro de artista?". Palacete del Embarcadero, Santander 2014-2015. Archivo Lafuente. Ediciones La Bahía. Heras (Cantabria/España).

**Paul Valery. Stéphane Mallarméren** (1842-1898) **liburuari buruz: un coup de dés jamais n'abolira le hasard**: "Mallarmék, azkenik, hitzak orrian nola antolatu ziren erakutsi zidan (...) neurri karratuan oinarritutako unitate artifizialaz harago, apaindutakoaren garrantzia eta esanahia azpimarratu zuen; dena pentsa zitekeen liburu bat nahi zuen, non zatien antolaera, txandakatzea eta erlazioa hausnarketa baten emaitza diren. Liburu horretan, inprimaketa tipografikoak eta orrialdeen tolesturak esanahi idealista, analitiko eta adierazkorra dute, baita intuizio globala ere, elementu horien guztien independentzian poesiaren zentzua ezartzen duena". (*Ernesto Ferrero eta Daniela Magnetti. Liberazione, Collezione Aprile di Cimia. Italia 2001*).

**Marcel Duchamp** (1887-1968): bere *Kutxa Berdeari* buruz: "Beste adierazpide bat. Zerbait margotu beharrean, miniaturan eta oso bolumen txikian hainbeste gustatzen zaizkidan koadroak erreproduzitzea da helburua. Ez nekien nola egin. Liburu batean pentsatu nuen, baina ez zitzaidan ideia gustatzen. Orduan kaxa bat bururatu zitzaidan, non nire obra guztiak miniaturazko museo batean, museo eramangarri batean bezala jasota egongo ziren. Horregatik paratu nuen maleta batean." (*La mariée mise à nu par ses CÉLIBATAIRES, même, La Boîte vert, 1934*).

"Ez du garrantzirik Mutt jaunak iturria bere eskuekin egin zuen ala ez. AUKERATU EGIN ZUEN. Bizitza arrunteko objektu bat hartu zuen, eta izenburu berri bat eta beste ikuspuntu bat emanda bere eginkizuna desagerrarazi zuen; ideia berri bat sortu zuen objektu horrentzat". (*"The Richard Mutt Case". Blind Mann (New York), 1917. Marcel Duchampi esleitzen zaion artikulua*).

"Onartu, goretsi, ospea eman eta abar egiten dizun hurbileko jendearen gustukoa izaten saiatzea da arriskutsuena. Zure benetako publikora iristeko, aldiz, agian berrogeita hamar edo ehun urte itxaron beharko dituzu, baina hori da interesatzen zaidan bakarra". (*Escritos. Jose Jimenezek zuzendutako gaztelaniazko edizioa. Galaxia Gutenberg 2019*).

**Ulises Carrion** (1941-1989): "Liburu bat testu baten behin-behineko kontinentea izan daiteke; beharbada egitura horrek ez du garrantzirik liburuarentzat: liburu-denda eta liburutegietako liburuak dira horiek.

Liburu bat modu autonomo eta buruaskia ere izan daiteke, forma hori nabarmentzen duen testu bat barne. Forma horren zati organiko bat da: hemen hasten da liburuak egiteko arte berria.

Arte berriak hitz isolatu bat erabiltzen duen guztietan, orduan erabatekoa da isolamendua; hitz bakar bat duten liburuak...”.

"Munduko libururik ederrena eta perfektuena orri zuriak besterik ez dituen liburua da, hizkerarik osoena gizaki batek ahoskatzen dituen hitzetatik haratago hedatzen den moduan". (*Second Thoughts, Void Distributors, Amsterdam, 1980*).

**Antoni Tàpies** (1923-2012): "Artea jakintza iturri bat da, zientzia edo filosofia bezala. Formak ez badira gai jasotzen dituen gizartea mintzeko, ernegatzeko, gogoetara bultzatzeko, pizgarri ez badira, ez dira artelan bat ".

"Artistak dena asmatu behar du, ezezagunean murgildu behar du, era guztietako aurreiritziak mespretxatuz, baita, nire ustez, tradizionaltzat jotzen diren materialen erabilera eta teknikak aztertzea ere (...). Ezin dut artista ulertu abentura betean ez bada, huts-hutsean igarotze betean". (*La vocación y la forma. Tàpies en perspectiva. Argitalpena: MACBA, 2004*).

"Koadro bat ez da ezer. Beste ate batera daraman ate bat da (...) bilatzen ari garen egia ez dugu inoiz koadro batean aurkituko. Behatzaileak bere ahaleginarekin gainditzen dakien azken atearen ondoren baino ez da irudikatuko. Eta margolana zenbat eta garrantzitsuagoa izan, eta margolanetan margotutako pertsonaiak zenbat eta garrantzitsuagoak, eta pintura-kolore eta geruza gehiago izan, hainbat eta lodiagoa izango da egia ilunduko digun beloa".

"Sarritan egiten dizkigute zorigaitzoko galdera hauek: zer adierazten du honek? Zer esan nahi izan duzu orban horiekin? Uste duzu marra edo material hauekin jendeak ulertzen dituela bere ideiak? Oro har, isildu egiten gara. Izan ere, ezinezkoa zaigu hitz gutxitan adieraztea (eta zenbait hitz aurkitzeke daude oraindik) urtetan lantzen aritu garen gauzak ". (*"Tàpies. Desde el interior. 1945-2011". Fundación Antoni Tàpies, 2013*).

**Brossa, Joan** (1919-1998): "Poema bat ideia bat da, hitzez nahiz hitzik gabe adierazia".

"Gauza esentzialekin bakarrik geratu behar dugu; esentziala izaten jakiteak heltzea esan nahi du. Ni saiatu naiz ahalik eta gehien ematen gutxienarekin". (*Jordi Coca: Joan Brossa o el pedestal son los zapatos. Bartzelona, 1971*).

"Uste dut egungo poetak bere eremua zabaldu behar duela, liburuetatik atera eta gizarteak berak ematen dizkion baliabide guztiekin proiektatu behar duela, eta poetak eramaile ezohiko gisa erabil dezakeela, gizarteak ematen ez dien eduki etikoa txertatuz. Hortik abiatzen dira, nire ustez, gure garaiko poesia esperimental bihurtzen den poesia bisualaren esperientziak. Ikusizkoaren eta semantikoaren artean dagoen lurralde berri batean sartzen gara"(1987).

"Brossak liburu bisual edo artista-liburu asko egin ditu, originaltasun handikoak, eta horietan banatzen du bere poetika esperimentala, urratzailea eta lirikoa. Poetaren eskuetan, beti sorpresari adi, liburua arte ezberdinen arteko mugak desagertzen diren ikerketa poetikoko beste espazio bat bihurtzen da". (*Manuel Guerrero: Joan Brossa o la revuelta poética, 2001*).

**Eduardo Chillida** (1924-2002): "Hasieran esan nien bezala (bere ikasleei Harvarden 1971n), nik ez nuen artearen irakaskuntzan sinesten, eta, aldiz, uste nuen artista batek egiten duena ikastea dela, irakasleak ezin duela irakatsi; aitzitik, irakaslearekin dagoenak ikasi behar du... Oso kontzienteki planteatu nuen arazoa: gela horretan nik egin behar nuena zera zen: nire ikasleei irakatsi bere irakasleak nola ikasten zuen...".

"Artista batek egiten ez dakiena egin behar duela uste dut, eta ez egiten dakiena. Kontra-esana dirudien eta ez den horrek, jarrera horrek, konpromiso bat eskatzen du maila pertsonalean, giza mailan, maila guztietan. Gauza bat egiten dakien artista bati (hau) hilda jaiotzen zaio. Artista baten bereizgarria da, hain zuzen, bere gain hartzen duen arrisku horren

eginkizuna, eta poeta bati dagokionez, berdin". (*Martin de Ugalde: "Hablando con Chillida, escultor vasco". Editorial Txertoa, 1975*).

**Fluxus: artea** (XX. mendeko 60. eta 70. hamarkadak):

Artistak gizartean duen estatus elitista, profesionala eta parasitarioa justifikatzeko, artistaren ezinbestekotasuna eta eskusibotasuna erakutsi behar du, publikoak horrekiko duen mende-kotasuna frogatu behar du eta erakutsi behar du artistak ez beste inork ezin duela artea egin.

**Beraz, arteak konplexua, harroputza, sakona, serioa, intelektuala**, inspiratua, trebea, esanguratsua, antzezlea iruditu behar zaigu.

Salgai gisa kalkulatzeko modukoa izan behar du, artistak diru-sarrera bat eskuratzeko.


Bere balioa (artistaren diru-sarrera eta babesleen irabazia) handitzeko, artea arraroa eta kopuru mugatukoa egiten da, eta, beraz, elite sozialarentzat eta erakundeentzat bakarrik eskuragarri. (*George Maciunas, 1965*).

**Isidoro Valcárcel Medina** (1937): "Tematu gara izate artistikoa gutxiengo batena izan behar duela, eta artistak, bereziak. Orduan, ez ditzagun onartu aukeratuek eta beren lanek aldiro aurkezten dizkiguten faltsukeriak edo adar-jotzeak. Proposatzen dut, erosotasunari men eginez, kanona onartzea eta liburu artistikotzat hartzea ofizialtasunak halakotzat hartzen dituen guztiak. Baina horrek ez du esan nahi gure azterketa- eta iritzi-eskubideari uko egiten diogunik (*"El sustantivo es 'libro'", 2018*).

**Umberto Eco** (1932-2016): "500 urtean baino gehiagotan liburu objektuaren inguruko aldatetek ez dute aldatu ez haren funtzioa, ez sintaxia. Koilara, mailua, gorpila, guraizeak bezalakoa da liburua. Behin asmatuta, ezin da ezer hoberik egin". (*Umberto Eco / Jean-Claude Carrière. "Nadie acabará con los libros". Lumen, 2010*).

**C. DANTO, Arthur.** Artearen amaierari buruz: "Nire ikuspuntutik, artea benetan edo funtsean zer den galdetzea izan zen, hain zuzen, kontuan hartu behar den galdera filosofikoaren okerreko forma. Ikusi nuenez, galderaren formulazioa hau da: zein da artelan baten eta artelan bat ez den zerbaiten arteko aldea, haien artean pertzepzio-desberdintasun interesgarririk ez dagoenean? "

"1963ko elkarrizketa batean, Warholek zera adierazi zuen: 'Nola esan dezake norbaitek estilo bat beste bat baino hobea dela? Pertsona batek gai izan behar luke datorren astean espresionista abstraktua izateko, edo pop artista bat, edo errealista bat, zerbait eman duela sentitu gabe'. Hau oso ongi adierazita dago. Manifestuek gidatutako arteari emandako erantzuna da; izan ere, manifestuei jarraitzen zietenen aburuz, "estilo" zuzena ez izatea zen beste arte batzuen funtsezko kritika. Horrek ez du esan nahi arte guztia berdin edo bereizi gabe ona denik. Bakarrik esan nahi du artearen arloan onak eta txarrak ez dutela zerikusirik estilo zuzenarekin edo manifestu egokian egotearekin. Ez da beharrezkoa esatea horrek kritikaren aukerak irekita uzten dituela. Horixe esan nahi dut "artearen amaiera" esamoldearekin. Mendeetan zehar artearen historian hedatu den kontakizun baten (pentsamolde jakin baten) amaiera esan nahi du ". (*Arthur C. Danto: "Después del fin del arte". Paidós Estetika, 2018*).



## “ARTISTA LIBURU” DIRELAKOEN AURREKARIAK

Oro har, joan den mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetatik aurrera sortzen hasi zen artista-liburuaren aurrekariak XIX. mendearen amaierako eta XX. mendeko lehen hamarkadetako abangoardia historikoetan kokatu behar direla da iritzi nagusia. Pertsona ospetsu ugari eta liluragarriak ditugu garai hartakoak (horietatik talde oso txiki bat baino ez dut aipatuko, beti bidegabeak diren omisioak saihesteko): Stéphane Mallarmé, Dadá, El Lissitsky, Eta Dieter Roth, Edward Ruscha, Ulises Carrion, Fluxus mugimendua, Eduardo Chillida, Tàpies, Brossa, Joan Miró, Isidoro Valcárcel, eta emakume eta gizon gehiago. Ez daude diren guztiak, ezinezkoa bailitzateke hori.

Garai hartan liburuaz gogoeta egiteari ekin zioten berriro. Baina ez zen hasierako datarik edo irteera-punturik egon, gutxi asko adostua edo eztabaidatua, gogoeta haietan inplikaturako pertsonentzat erreferentzia komuna izan zitekeena. Gidoia ez zegoen idatzita. Prozesua luzatu egin zen zenbait hamarkadatan. Askotariko argitalpenak agertu eta desagertu ziren. Hainbat artista eta poeta izan ziren, hainbat garai eta lekutan, batez ere Europan, Estatu Batuetan, Mexikon eta abar, eta bide horretan aurrera egin zuten. Bakoitzak bere ikuspegi eta praktika bereziarekin.

Era berean, ez zen mugimendu edo korrante koordinaturik egon une jakin batean artista-liburua sortzeko, ezta manifestu edo testu idatzirik ere ideia sakanbanatuak nolabait bateratzeko. Garai hartako abangoardiek motibazio oso ezberdin eta aldakorak zituzten: literarioak, ideologikoak eta politikoak, estetikoak, komertzialak...

Lan horietako asko produktu hibridoak ziren, eskuz egindako artista-liburuaren eta inprimategiko bitartekoen bidez inprimatutako liburuaren artekoak. Halaber, poesia bisualak eta poesia objektualak (Breton, Duchamp, Brossa...) aberastasun eta konplexutasun handiagoa gehitzen zioten haztegi hari. Liburua goitik behera jarri zen auzitan; bai edukia, bai edukitzailea: idazketaren eta joera poetiko eta literarioen erabilgarritasuna; testuen, ilustrazioen eta zuriuneen arteko harremana orrietan; liburuaren esanahia bera; jatorrizko tipografien erabilera; argitalpen horien hartzaileak; horiek egiteko bitartekoak; horien banaketa eta salmenta.

Orduko artista-liburuaren egile gehienak XX. mendearen bigarren erdian hasi ziren jardura horretan, eta ez zuten asko teorizatu gaiari buruz. Argitaratzen ziren argitalpenen kategorizazioa eta artista-liburu gisa definitzea ez dirudi garai hartako autore gehienek kezka zenik. Beste kezka batzuk zituzten. Beren liburuak egiten zituzten. Artista-liburuari, haren ezaugarriari, bilakaerari eta abarri buruzko gogoeta gehienak idatziz jartzea geroago hasi zen, eta batez ere artearen kritikari eta historialariek eta arte ederren irakasleek egin zuten.

Berrikuntza ekarri zuten artista-liburuak (edo halakotzat hartzen direnak, izen hori erlatiboa bada ere) egiten hasi ziren datei erreparatuz gero, badirudi **Dieter Roth** (1930-1998) jatorri alemaniarreko artista izan daitekeela korrante honen abiarazlea (edo ezagunena, gutxienez), 1954an. Roth, gainera, oso emankorra izan zen mota honetako lanen ekoizpenean, eta balio erantsi bat da hori alor honetan. Esaten denez, liburu horiek bitarteko industrialen bidez inprimatzearen aurkakoa zen, eta hori aukera benetan berritzailea zen garai hartan (gaur egun ere asko eztabaidatzen da horri buruz).

Eduardo Chillida ere lan mota hauek egin zituzten lehen artistetako bat dugu.

1956an *Derrière le Miroir* osatu zuen, 1980ra arte Maeght galeriak antolatutako zazpi erakusketetako aldizkari-katalogoetako lehena. Lan horretan, xilografikak, jatorrizko litografiak, marrazkiak eta argazkiak bildu zituen. Hura izan zen, hain zuzen, Chillidaren 30 artista-liburuetako lehena.

Garai hartako ekarpen teorikoetako batzuk, arreta handia erakarri zutenak, **Ulises Carrionenak** izan ziren; bereziki 1965ean lehen aldiz argitaratutako *El arte nuevo de hacer libros* saiakera.

Saiakera horretan, lehenik eta behin, “zer da liburu bat?” galdera egiten du. Hortik abiatuta, prosa eta poesia, espazioa, hizkuntza eta liburuak egiteko arte berri horren egiturak jorratzen ditu. Hala ere, kontuan hartu behar da bere proposamena hitzak dituzten lanei buruzkoa dela; alegia, irakurtzeko (edo ez irakurtzeko) direnei buruzkoa. Ez du inoiz artista-liburu gisa aipatzen; eta ez du lantzen genero horretako beste gai garrantzitsurik, hala nola erabili beharreko materialak, formatuak, lan plastikoaren izaera, objektu diren liburuak).



## ARTISTA-LIBURUA DEITZEN DIDATE. ZER EGIN DUT NIK HAU MEREZI IZATEKO?

Galdera honek era askotako erantzunak izan ohi ditu, bere mugak oso lausoak baitira batzuetan, ezinbestean. Gainera, horretan ez dago ezer negatiborik, sorkuntza artistikoaz ari baikara. Barietate aberats horretan datza, paradoxikoki, bere erakargarritasunik handiena. Saillkatzen zailak diren obrak egitea ez litzateke arazo izan behar inorentzat. Bizia eta aldakorra den ia guztiarekin gertatzen da. Gogoeta egitea tokatzen da; batzuetan nagikeria dago artista-rengan, beste batzuetan nagikeria begiratzen duenarengan dago. Picassok esan zuen bezala: "Nik bukatu dut, orain lan egin ezazue zuek".

**Artista-liburua izendapen generikoegia da, zalantzarik gabe, eta askotariko lanak biltzen ditu (tratamendu zehatzagoa eta bakarkakoagoa merezi dutenak);** desberdinak dira edukietan, adierazpen-hizkuntzetan, tekniketan, erabilitako materialetan, formetan eta dimentsioetan. XXI. mendeko liburuaren azken muga da... orain arte.

Lurralde ezin hobea da artista mota ezberdinentzat, banaka edo taldeka. Inprimategiko liburuak argitaratzen dituen enpresak ezin du artista-libururik ekoitzi, horretarako berariaz antolatzen ez bada; ez datoz bat bere industria-ekoizpenaren ikuspegiarekin. Argitalpen-industria amaitzen den lekuan hasten da artista-liburua.

### Nik honela ikusten dut

Ez daukat inolako asmo inozorik epaile-lana eginez mailak edo hierarkiak ezartzeko (gainera, ez dut horretan sinesten). Nik artista-liburua nola ikusten dudan baino ez dut azalduko. Beraz, onerako eta txarrerako, nire ardurapekoa da honako hau:

**Liburu objektua, osorik,** bi dimentsiotan ikusten da orain: ideiak eta ezagutza kontserbatzeko eta transmititzeko giza asmakizunik bikainena da, eta, aldi berean, sorkuntza artistikorako bitarteko emankorrenetakoa da, hizkera, forma, eduki, material eta lengoaia anitzak hartzeko gai dena. Izan daiteke, aldi berean, bitartekoa eta mezua.

Sorkuntza artistiko askea denez, ez die zertan egungo liburuaren muga konbentzionalei jarraitu, nahiz eta horretarako aukera baduen. Muga horietako bakoitza alde batera utz dezake, eta bere konposizioan muga guztiak esploratzera ausartu, ohiko liburuaren iristen ez den mugak. Artelan bat da, bere arrisku guztiekin. Bestalde, liburu bakarra edo edizio seriatu eta zenbakitua izan daiteke.

Artista-liburua, lehenik eta behin, ideia bat da. **Joan Brossa** parafraseatuz, "*Poema bat ideia bat da, hitzez nahiz hitzik gabe adierazia*"; esan genezake artista-liburu bat ideia bat dela, hitzak barne hartu ala ez. Gero, noski, obra plastiko bihurtu behar da.

Artelan hori lortzeko, zentzuzkoa denez, artistak (edo bere taldeak) diseinu eta exekuzio praktikoko prozesu osoa kontrolatu behar du; bere jakintzak baliarazten ez baditu, industriaren boterea gailenduko da.

Artelan plastikoa da, batez ere eskuz egina. Baina horrek ez du esan nahi baliabide teknologiko modernoak erabili behar ez direnik. Neurri eta portzentaje kontua da. Gauzak oso gutxitan gertatzen dira ehuneko ehunean. Horretarako dago artistaren irizpidea.

Artista-liburua obra plastiko bihurtu nahi ez balitz, ez luke zentzurik horretaz guztiaz hitz egiteak. Horretarako dago betiko liburua; argitaletxeen industriak ale bikainak ekoizten ditu, eta prezio onean.

Jarrai dezagun hausnartzen: Erdi Aroko kodex argiztatu bat, gaur egunera ekarria (bereizgarriak bereizgarri), ez al litzateke erabateko artista-liburu bat? Zer alde dago gaur egungo artista-liburu baten (tipografikoki inprimatua) eta Gutenbergen lehen inkunable tipografikoaren artean? Bada ezberdintasun bat, baina Mainzeko tailerraren alde, izan ere, profesional haiek berunezko tipoak ere diseinatu zituzten, eta ondoren fabrikatu.

Gure artista-liburura itzuliz, ziur asko bere ezaugarri bereziena hizkera eta diziplina artistiko mota ugari integratzeko duen gaitasuna da, liburuaren arte eta lanbideetatik askoz haratago; bakarrik edo konbinatuta barne hartzen ditu diziplinak. Ez dut ezagutzen hainbeste jakintza biltzen dituen arte-generorik.

Ondorioz, adierazpenaren tipologiak sormen liluragarrikoak dira. Esperimentatzeko eta ikertzeko etengabeko grina erakusten dute: ohiko itxura duen liburu behar bezala azaleztatutakoaz gain, baditugu hitzik eta paperik gabeko liburu eskultura, *readymade* lagundua, kaleko ale erraldoia, obra kolektibo publikoa...

Diseinuen aberastasuna eta konplexutasuna hain handiak izanik, irudika daitekeen material oro erabili beharra dago, ezinbestean: naturatik hartuak, organikoak eta ez-organikoak, edo industrian landuak. Horrela izan da ia hasieratik. Arraroa da oraindik erabili ez diren produktuak aurkitzea; artista liburuak ondo daki horiek aprobetxatzen.

Lan hori guztia erabateko sormen-askatasunaren erdian garatu behar da. Arauak, mugak eta hierarkiak ezartzeko edozein saiakerak porrot egingo luke.



## Inprimategian argitaratutako liburu bat "artista-lantzat" jo daiteke?

"Eskuz inprimatutako argitalpenen arlo guztia ez dut gustuko, argitalpen horiek zintzoak izan arren... ..Ez dut sortu nahi edizio mugatuko liburu zoragarri bat, lehen mailako serieko produktu bat baizik". "Horrela deskribatzen du Ruschak, 1965ean, bere liburuen izpiritua. Lehenengoa, *Twentysix Gasoline Station*, berak argitaratu zuen duela bi urte " (Anne Moeglin-Delcroix. *Artista Liburuaren Lehen Nazioarteko Azoka* (Paris, 1994).

Dakigunez, lan hau, arlo askotan, historiako lehen artista-liburutzat hartzen da, gaiari buruzko literaturan azken hamarkadetan erabiltzen diren kontzeptuen arabera. Eta baieztapen hori behin eta berriz errepikatzen da argitalpen askotan.

Ruscharen lan zehatz hori alde batera utzita (ez dut epaitzeko asmorik), eztabaida interesgarriak sortu ohi ditu offsetean inprimatutako lan bati "artista-liburu" izena emateak.

Baina horietan sartu aurretik, ez da soberan egongo hitz gutxitan azaltzen saiatzea zertaz ari garen offsetez egindako edizio masiboaz hitz egiten dugunean (edo serigrafiaz, litografiaz, ziklostilez edo fotokopiagailuz): 70eko eta 80ko hamarkadetan (ordenagailuko diseinua gailendu aurretik), aldizkarien ekoizpenean lan egin nuen, erredakzioko, diseinuko, konposizioko, maketazioko eta edizioaren ikuskapeneko lanetan. Hortaz, badut esperientzia hizpide dugun gaian. Urte haietan, eta are gehiago 60ko hamarkadan, lan bat offseten editatzeko, aldeztu aurretik maketa oso bat egin behar zen paperean, ondoren makinetan tiradak egiteko erabiltzen ziren xaflak edo klixek egiteko.

Offseteko liburu edo aldizkari bat argitaratu nahi zuen pertsonaren lana (diseinatzailea, artista plastikoa, idazlea, argazkilaria), kasurik onenean, eta klixek egin aurreko prozesu guztiaz arduratzen zela suposatuz, maketa egitea baino ez zen. Bere sormen lana papera eta tintak aukeratzea zen, eta orrien inprimaketaren kalitatea gainbegiratzea. Beste guztia inprentak egiten zuen. Beraz, obraren egileak, gehienez ere, liburu bakarra egin zezakeen sormen-prozesuan zuzenean esku hartuz: **maketa**. Gainerako liburukietatik egiletza intelektuala geratzen zitzaion; hori funtsezkoa zen, jakina, baina ez zeukan besterik. Merkaturatzen diren aleak jatorrizko liburuaren inprimategiko erreproduktzioak baino ez dira. Ondoren, egileak bere produktua nahi zuen eran aurkez ziezaiokeen publikoari, baina hori beste kontu bat da.

Gai honek guztiak, nire iritziz, galdera asko sortzen ditu, adibidez:

Guztiz legitimoa da, jakina, liburu bat egin duen edonork erabakitzea masiboki editatzea inprimategian, offsetean kasu honetan, kalitate handiz eta salmenta-prezio eskuragarrian, esan behar duena jende gehiagorengana iritsi ahal izateko. Hori egunero gertatzen da leku guztietan.

Baina erabaki hori hartuta, zein da liburu hori "artista liburutzat" jotzeko arrazoia, zer premia dago, zer bilatzen da?

Kalifikazio horrek balio erantsia ematen dizu? Liburu horren izaera hitz-joko bati esker eraldatzen da, alkimia baten ondorioz?



Nahikoa al da inprenta-liburu bat arte-zereginetan diharduen pertsona batek diseinatu eta egina izatea, bere borondatez eta bere sinadura gehitzeagatik "artistatzat" har dadin?

Artista-liburu bat artelan bat dela uste badugu, eta hala dela dirudi, non dago artistaren sortze-lana inprenta-liburu baten 1.372. kopian? Benetan uste al du kopia hori erosi duenak bere liburutegian artelan bat duela?

Ez al litzateke zuzenagoa, gertakarien errealitatetik hurbilagoa, inprimategiko lan horien fitxa teknikoan adieraztea "XYZ" jatorrizko artistaren liburuaren erreproduzio industrialak dela, edo antzeko zerbait?



## NEURONAK, LANERA! LIBURU BAT DISEINATU ETA EGINGO DUGU

Obra bat diseinatzen eta egiten saiatzean norberak jokoan jartzen dituen prozesu mentalk aztergaitzak direnez, erabat lekuz kanpo legoke ni hemen jardunbide orokor batzuk ezartzen saiatzea. Badira folioari edo mihise zuriari aurre egiten diotenak, ziurgabetasunak ematen duen emozioarekin eta ezusteko agerpenarekin gozaten dutenak; beste pertsona batzuek, aldiz, bestelako lehentasunak dituzte, eta ez dute lerro bat marrazten aurretik proiektua buruan zehazturik ez duten bitartean. Bakoitzak bere bidea aukeratzen du, ahal badu...

Hori bai, nire iritzia bakarrik eman dezaket, nire esperientzia partikularrean oinarrituta dagoena.

Nire ustez, artista-liburuak diseinatu behar direnean, badira **beti elkarrekin oso lotuta dauden hainbat alderdiri behatu behar zaienak baina bereizi ezin direnak, hala nola: transmititu beharreko ideia, obraren funtzio soziala, formak, hizkuntzak, egiturak eta materialak. Elementu horiek, elkarren artean oso modu malgu eta aldakorrean nahastuta, oreka jakin bat ematen diote obrari, aztarna bakar bat, definitu ezin den baina oso presente dagoen usain bat.**

Koktelerako osagaiak:

**Idea, kontakizuna.** Zer esan nahi dut liburuarekin eta nola?

Batzuetan ideia bihurgunetsua, sotila, iradokitzailea da, zehaztugabea.

Beste batzuetan, kolpe biribila eman behar izaten da, lehorra, begirunerik gabea, ageriko salaketa.

Edo, aitzitik, esker ona eta mirespena erakutsi nahi dituzu.

Batzuetan, hitza ezinbestekoa da, beste batzuetan, berriz, soberan dago.

Normalean jendeari gauzak bere kabuz pentsatzeko gonbita edo erronka botatzea ona da. Batzuetan, ordea, ez duzu ezer espero, zerorrek eman nahi duzu ukabilkada mahaian eta "aski da!" oihukatu, ondorio guztiekin.

Batzuetan, ideiak ez du itxura hartzen, gauak lo egin ezinik eman arren, eta denbora luzez egoten da trabatuta "Egiteko daudenak" karpetan.

Beste batzuetan, ustekabeen sortzen da, sutauts zoragarri bat bezala, eta berehala ekin behar diozu lanari.

Kontuan hartu behar da, bestalde, liburuak izango duen **funtzio soziala** edo, bestela esanda, haren hartzailleak eta txertatzen den eremua. Adibidez:

Liburu seriatua, kostu txikikoa, publiko handiari zuzendua, baliabide ekonomiko oso urriak dituzten pertsonak barne.

Liburuzale aberats batentzat edo horretarako aurrekontua duen erakunde publiko edo pribatu batentzat oso garestia den ale bakar baten enkargua.

Liburu bat haurrentzako liburutegi publiko baterako; hura oso erabilia izatea nahi nuke, eta eskuetatik eskuetara pasatzea.

Gure lan bat, oso pertsonala, lagundu nahi dugun liburutegi publiko bateko funtsetarako emango duguna.

Eskola publiko bateko festa batean hurrekin batera eraiki nahi dugun liburu erraldoia.

Hainbat ale zenbakitu, diziplina anitzeko artista talde batek eginak, gertaera garrantzitsu baten kariaz.

Erabili beharreko **formak, lengoaiak, egiturak eta materialak**, formatua, kolorea eta testura ere badituztenak. Jarduteko erabil ditzakegun baliabideak ia agortezinak dira.

Zein hizkuntza adierazkorretan erakuts ditzaket hobeto nire ideiak? hizkuntza idatzian, hitzaren nagusitasun absolutuarekin, edo agian marrazkiaren bidez, edo formula misto batekin?

Eta liburu eskultura bat aukeratzen badut, *art paper* delakoaz egina, erre-txinazkoa eta metalezkoa?

Hobe poema sorta baten bidez?

Eta zergatik ez ohiko lan bat, "betikoa", argazki batzuk gehituz?

Zergatik ez *ready made* lagundua (Duchamp-i jarraituz), nire ukitu pertsonala erantsiz, eskura ditudan gauza iradokitzaileak erabiliz?

Nola inprimatzen ditut gehitu nahi ditudan poemak? tipografian, serigrafian, litografian? Beste irtenbide posible bat: kaligrafiatuak.

Liburuaren Eguneko haurren festan, Udal Liburutegiko haurrek artista liburu erraldoi bat egitea nahi dut, guk lagunduta eta haiek marraztua, moztua, idatzia. Zer liburu-egitura eta zer material izan daitezke egokienak horretarako?

Obra horietako bakoitzaren diseinu zehatza egitean kontuan hartu behar ditugun elementuen multzoa berdina izango al da kasu guztietarako? Jakina ezetz. Mahai gainean jarriko ditugun gogoetek obraren osagai askori eragingo diete: materialen kalitatea; liburuaren egituren sendotasuna eta, ondorioz, koadernaketa mota egokiena aukeratzea; hartzaileen eskuragarritasuna; salmenta-prezioa, etab. Hori guztia da.

Koktelaren azken emaitza: ideiak + funtzio soziala + formak + hizkerak + egiturak + materialak = gure liburua.



Artista-liburu erraldoi kolektiboa

## **KOADERNATU EZIN DEN IA EZER EZ DAGO**

Bizikleta bat ere bai?, esaten zidan lagun batek txantxetan. Bada, erantzuna baiezkoa da, sinesgaitza badirudi ere. Zaila, bai, eta zentzugabea seguruenik, eta garestia, baina guztiz posiblea. Hori da kontua.

Baieztapen hori gehiegizkoa izan daiteke, baina ezagutza egokiak izanez gero eta horri buruz hausnartuz gero, asmakizuna egia bihur daitekeela ondorioztatuko da. Nahikoa da ausardia handiz jokatzeko eta obra egokiro diseinatzea. Tamaina da kontua, eta aurrekontu bat izatea. Alde handiagoa dago txalupa xume baten eta transatlantiko baten artean.

Baliabide asko ditugu eskura: liburu soila, koadernotxo tolestu bakar batez osatua; orri solte bakunak liburu trinko bihurtuak; erabat asmatu beharreko egitura konplexuak, eskartibanak eta beste baliabide original batzuk dituztenak.

### **Zereginak planifikatzea**

Zer egin nahi den pentsatzeko denbora hartu behar da. Zalantza nagusitzen bada, hobe da gelditzea eta atzera bueltarik ez duen eta obrari kalte egiten dion urratsik ez ematea. Hau funtsezkoa da. Papera edo metala moztu, zulatu eta kolatu bada, adibidez, emandako pausoak ez du atzera bueltarik. Kontuz honekin.

Lan-prozeduren plangintza bat egiten badugu, **neurri zehatzak dituen marrazki bat** barne, errazago saihestuko ditugu akats ohikoenak: obra batean erabili beharreko koadernatze-egituraren diseinu akastuna; material desegokiak erabiltzea; aintzat ez hartzea zuntzaren norabidea paperean eta kartoian; kolaz betetako liburu-bizkarra, artikulatzen eta malgutzen ez dena; gaizki egindako josturak, lasaiegiak eta zakarrak; ondo egokitzen ez diren kaxa, artikulazio edo estalkiak (liburuia soberan eta estalkia faltan, edo alderantziz); triapak handituta eta deformatuta dituzten liburuak, barruan mila objektu itsatsita dituztela; estalki eta xafla konkortuak edo zimurtuak.

Hainbat liburu ekoitzi behar badira, nahiz eta asko ez izan, komeni da tailerra eta ekoizpen-prozesu osoa serieko lanari dagozkion irizpide industrialen arabera antolatzea: zeregin bakoitza gauzatzeko modurik egokiena aztertzea eta alferrikako ekintzak ez errepikatzea.

Horrek esan nahi du lan-plan osoa programatu behar dela (hasieratik bukaerara), zereginen ordena eta horiek egiteko metodoak zehaztu, eta taldeko lana argi eta garbi banatu, pertsonaz pertsona. Ondo edo gaizki inbertitutako lan-ordu asko egon daitezke jokoan.

### **Material egokiak aukeratzea**

Garrantzitsua da liburuaren zati bakoitzarentzat material egokiak bilatzen jakitea. Ez da nahikoa produktu batek itxura erakargarria izatea; engainagarria izan daiteke. Ziurtatu behar da, adibide zehatz bat jartzearren, hain interesgarria dirudien paper hori aldi berean baliagarria dela gehiegi zimurtu gabe kolatzeko (askotan arazo larriak sortzen ditu).

Arreta bera eskaini behar zaio produktuak egiteko erabiltzen den lehengaiaren kalitateari, pH-a barne, onddorik, materialak hondatzen dituen azidotasunik eta antzeko hondamendirik gabeko obra bat sortu nahi bada. Horrek era berean balio du kola mota eta itsasgarri guztientzat, inoiz ez baitira erabat kaltegabe eta neutroak.

### **Zuntzaren norabidea paperean, kartoi mehean eta industriako kartoi kontrakolatuan**

Behar bezala eraikitako liburu batean, material industrialen zuntzek eta, ondorioz, koadernoan tolesturak, bertikalki joan behar dute, bizkarraren norabidean. Horrela, zuntzak ez dira hausten kontrakarrean tolestean, eta liburuako orriak errazago irekitzen dira. Halaber, liburuaren bizkarra kolatu behar bada, ez da uhinduko, eta liburuaren gorputzak hobeto jasango du bere pisua.

Ezinbestekoa da alderdi hori ezagutzea papera, kartoi mehea edo kartoi kontrakolatua duen edozein obra egiten hasi aurretik. Artisau-fabrikazioko paperak ez du norabide bakarreko zuntzik. Hainbat prozedura daude zuntzaren norabidea paperean aurkitzeko; horietako batzuk aipatuko ditugu:

- Paper-orri batean bi tolesdura egitea leunki, bat luzean eta bestea zabalean. Tolestura zuzena uniformeagoa izango da (ikus irudiak).

- Papera urratzea (prentsakoa, adibidez) gurutzatutako bi norabidetan. Zuntzaren aldeko arraidura askoz erregularragoa izango da.
- Moztu 7-10 mm-ko zabalera eta 8 cm-ko luzera duten paper-orri baten bi zerrenda. Bi hatzen artean paraleloan eutsi eta uretan sartu segundo batzuez: bertikalean geratzen denak zuntzaren norabidea adieraziko du.
- Tamaina jakin bateko paper bat mahai baten ertzean lotzea, eta paperaren zatirik handiena airean uztea zintzilik, bi alde gurutzatuta. Gehien tolesten den zatiak, gehien erortzen denak, zuntzaren norabidea erakutsiko du.




Paper zuntzak mikroskopioan. Norabide batean lerrokatzen dira




Zuntzaren kontra tolestea. Zuntzak erresistentzia erakusten du



Zuntzari jarraituz tolestea behar bezala tolesten da



Paper tenteak zuntzaren norabidea adierazten du



Hausturarik uniformeena norabidea adierazten du

*Sortzerakoan, erabili baino lehen, astindu. Astindu ideiak.  
Astindu metodoak. Astindu hizkerak.*

Jorge Wagensberg

## **IDEIA ETA PRAKTIKA ZEHATZAK**

### **TAILERREKO ARIKETEKIN**

Zeregin hori errazte aldera, hurrengo kapituluetarako aukeratu ditudan lan guztiak nik eginak dira. Katalogoa ez denez, alde batera utzi ditut horrelako argitalpenetan obrekin batera egin ohi diren fitxa teknikoak. Kasu bakoitzean interesgarrienak iruditzen zaizkidan datuak bakarrik idatzi ditut.

Liburuaren bigarren zati honetan tailerreko ariketa praktiko batzuk proposatzen dira, beren artista-liburua koadernatzen saiatuko diren pertsoneri orientazioa emateko. Hitzurrean esan dudana bezala, nire esperientziari jarraituz koadernatutako lan bat modu jakin batean diseinatu eta egiteko eta kasu bakoitzean irizpide batekin aukeratzen jakiteko kontuan hartu behar diren oinarrizko alderdiak bakarrik hautatu ditut.

### **KOADERNATUTAKO ARTISTA-LIBURUAK: OINARRIZKO EGITURAK ETA JOSTURAK**

#### **Liburuxka bakarreko liburu malguak**

Liburuaren arkitekturarik sinpleena da, erresistentea eta aldi berean molda-erraza eta malgua. Erabat irekitzen da, inolako zailtasunik gabe. Liburu hau egiteko nahikoa dira orratza, haria eta eztena.




## Lan-prozesua

---


- 1 Orriak tolestu koadernotxoaren osatzeko.
2. Eztenaz zulatu. Zulo kopurua hautazkoa da.
3. Josi.
4. Barruan begizta bat utzi.
5. Harien muturrak begiztatik pasatu. Itxitura ondo tenkatu eta korapilo bat egin.



1




2




3



4



5




6




Metalezko liburu eskultura.  
Metalezko hariak jositako  
koadernotxo bakarrean.  
Artisau eran tindatutako eta  
gofratutako aluminioa



Metalezko liburu eskultura.  
Aurrekoaren berdina



Liburu bitxia, 20x20 mm. Koadernotxo bakarra, urre-koloreko hariak jositako.  
Urrezko ogiz estalitako artisau-paperezko estalkia





Poesia objektuala. Artisau paperezko  
liburua eskularru babeslearen  
gainean




## ORRI SOLTEAK LIBURU BIHURTUTA

Josteko eta kolatzeko teknika jakin batzuen bidez, posible da orri solte malguko gorputz bat izen horretako liburu duin bihurtzea. Obra sendoa da, iraunkorra, eta oso erraz irekitzen da.




### Lan-prozesua

- 1 eta 2. Liburuko orriak egokiro berdindu, prentsan lotu eta bizkarra kolatu, abanikoan irekiz bi noranzkoetan. Koadernatzeko berriazko kola erabili beti.
3. Orriak zuzendu eta kola ondo banatu.
4. Arraildura makurtuak egin, ondo zorroztutako erreminta batekin.
5. Arrailduren barnealdea kolatu eta sakonean hari bat sartu.
6. Arraildurak ondo itxi. Eman kola pixka bat bizkarrean.
7. Babes-orriak jarri. Liburuaren muturrean zentimetro bateko zabalera duen banda batean bakarrik kolatu.
8. Tarlatana bizkarrean kolatu.



1




2



3




4



5




6



7



8



## Zulatutako eta jositako orri solteak


Sistema honek lehen deskribatutakoak baino segurtasun handiagoa ematen du, baina irekiera txikiagoa ahalbidetzen du.




### Lan-prozesua

---

1. Bizkarra kolatu ondoren, orriak kartoi gogorren artean zulatu.
- 2 eta 3. Josi orratzarekin eta hariarekin, joan-etorriko prozesu batean.
- 4 eta 5. Jarri babes-orriak, liburuaren muturrean kolatuta, josturaren gainean.
6. Tarlatanazko pieza bat kolatu bizkarrean.



1




2



3



4



### **Kordelik gabeko koadernotxoen jostura**

Soiltasuna menperatzean datza teknika hau. Orratz bat, hari bat eta ezten bat nahikoa dira 180 gradutan irekitzen den eta bizkarrean kolarik behar ez duen liburu perfektu bat egiteko. Estalki gogorrekin babestu daiteke, nahi izanez gero, baina aurrerago azalduko dugu hori.





### **Lan-prozesua**

1. Zuloak txantilo batean jarri eta eztenaz zulatu. Zuloak beti zenbaki bikoitian egin.
- 2 eta 3. Josi, marrazkian adierazitako jarraibideak betez. Ondo erreparatu hariaren koloreei eta geziaren norabideei. Lehen koadernotxoan, adibide honetan,

eskuinetik ezkerrera josten hasten da, hari laranja; kolore berdeko hariak itzulera-prozesua adierazten du.

4 eta 5. Liburuaren irekiera perfektua.



### **KOADERNOTXOAK GREZIAR ERARA JOSTEA, BASTIDOREAREKIN**

Jostura klasikoa dugu hau, artisau-koadernaketan asko erabiltzen dena. Bastidore bat behar da. Horrela eraikitako liburuaren gorputza sendoa eta mardula da. Bizkarrean artekak egin behar dira zerraz, eta hori, batzuetan, eragozpen bat da, ebakia paperetan ikusten baita.



## Lan-prozesua


1. Ondo lerrokatu koadernotxoak kartoi zurrunen artean. Prentsa batean jarri. Zerratzeko markak marraztu.
2. Sakonera egokian zerratu. Hemen zurgin-zerrotea erabiltzen da.
3. Kordelak ondo tenkatu bastidorean, eta josi. Kanpotik hasten da (hemen eskuinetik, baina berdin dio).
- 4 eta 5. Marrazkiak gorritz markatzen du hariaren ibilbidea. Hariak kordela inguratzen du kanpotik.



1




2



3



4




5

6



### **Bizkarra agerian duten josturak**

Aukera horietako askotan, ageriko josturek funtzio bikoitza betetzen dute: liburuaren gorputza forma jakin batean mihiztatzeko teknika gisa, eta, aldi berean, obraren elementu apaingarri gisa, alderdi hori oso garrantzitsua baita batzuetan. Horregatik, erabiltzen diren estiloen aniztasuna ia agortezina da.



### **Lan-prozesua**


1. Hainbat orriz osatutako paperezko koadernotxoak egin, eta zulatu.
2. Sokak agerian dituzten josturak, bizkarraren kanpoaldean. Kordelak askotariko materialez eginak izan daitezke, baina komeni da malguak izatea.
3. Joste-teknika batzuekin egindako marrazkiak. Forma eta teknika ugari daude. Hemen errazena erakutsiko ditugu. Erreparatu marrazkiaren gezien norabideari.



1




2



3



Sinadura-liburuak, formatu handikoak. Kartoi uzkurtuzko koadernetxoak. Ageriko kordelen gaineko josturak



Estalki askeko koadernaketa. Aluminiozko estalkiak, minieskultura eta guzti. Greziar erako jostura. Bizkarra agerian. Hiru ebaketak eta bizkarra, margotuta





Jostura koptoaren teknikaz jositako liburua. Paperezko eta kordelezko koadernotxoak




### **Azal biguneko liburuak**

Gaurdaino gehien saldu den ekoizpen industrialeko liburu mota da. Estalkia, nagusiki, kartoi mehez edo paperez egiten da, eta estalki biguna deritzo. Hala ere, eskulangintzan eta artegintzan beste material moldaerrez asko ere erabiltzen ditugu, bai merkatuan daudenak, bai geuk egindakoak.




Artista-liburua. Serigrafiatutako artisau-paperak. Azal bigunezko koadernaketa. Estalki biguna. Jositako koadernotxoak. Bizkar kolatua bizkarrean



#### Lan-prozesua

---


1. Tolestu kartoi mehezko estalkia, liburuko neurrien arabera. Komeni da aldez aurretik marraztea.
2. Kolatu estalkia bizkarrean (komenigarria bada, bestela ez). Aplikatu kola-kantitate doia; gehiegizko geruza batek liburua irekitzea zailtzen du.
3. Utzi kola lehortzen, liburua bizkar gainean jarrita, gutxienez hamabi orduz.
4. Liburua erraz zabaltzen da.




1



2



3



4



### Azal artikulatu tolesgarriko liburu eskulturak

Izenburuan adierazten den bezala, liburu horien ezaugarri bereizgarriena da, egiturari esker, aldi berean, eskultura artikulatu eta tolesgarriak izan daitezkeela. Horrela, liburuak une bakoitzean nahi dugun forma eskultorikoa hartuko du.

Ezin konta ahala aldaera sor daitezke, diseinuaren eta materialaren arabera.



Artista-liburua, liburu eskultura. Azal tolesgarria, koadernatzeko oihalera itsatsitako zeramikazko barrez egina, sendoa eta malgua. Oihalera jositako koadernotxoak



Funtsean, aurrekoaren berdina

## Lan-prozesua


---

Orri honetan lan-prozesua erakusteko aukeratutako eredua honako hauek osatzen dute: koadernatzeko oihalezko estalki malgu bat, kartoi trinkoko barrak eta kartoi mehezko koadernotxoak.


1. Marraztu liburu osoaren formak paperean, neurriekin.
2. Kanpoko barrak (kartoi trinkokoak kasu honetan).
3. Paperezko txantiloia, orriak edo koadernotxoak estalkiari lotzeko jostura-puntuak markatzeko. Aldi berean, zulatu koadernotxoak eta oihalezko estalkia, bakoitza dagokion tokian.
- 4 eta 5. Josi koadernotxoak estalkiari.
6. Kolatu kartoizko barrak estalkiaren kanpoaldean, josturak estaliz.




1




2




3



4



5





6

### Akordeoi formako liburuak

Horrelako lanen abantailak agerikoak dira: edukien erakusketa panoramikoa ahalbidetzen dute eta erraz tolestean dira gordetzeko. Formatuei, materialei, neurriei eta abarri dagokienez dauden aukerak amaigabeak dira. Zailak dira eraikitzen.



Bi neskatok buztinezko taula sumertarra asmatu izanari buruzko ipuina. Eskuz idatzitako testua, lumaxarekin. Artista-liburua. Kartoi trinkozko estalkiak, lixiba bidezko dekolazioekin ilustratuak



## Lan-prozesua

1. Tolestu kartoi meheak. Ez ahaztu liburuaren atzealdean dagoen tolestura txiki bat, gero hurrengo koadernotxoarekin kolatuko dena.
2. Tolestura kolatu eta prentsatu.
3. Liburua akordeoian berdindu, oina eta burua gillotinatuz. Estalkiak neurrira prestatu.
4. Itsatsi liburuari kola puntu batzuekin. Prentsatu.





3



4



Akordeoi formako artista-liburu ispiluduna, oihalez forratutako kartoizko estalki baten gainean muntatuta




Akordeoi formako artista-liburua. Liburu zaharren hondakinez birziklatua



Akordeoi formako artista-liburua. Raku zeramikazko plakak, grabatuta eta zilarreztatuta

## Azal gogorreko liburuak: bizkardunak eta bizkarrik gabeak

Ez da beti beharrezkoa liburuaren azalak eta bizkarra material batekin erabat estaltzea. Azal gogorak ezin hobeto jar daitezke bizkarra agerian utziz, josturak eta beste esku-hartze batzuk nahita erakutsiz.




### Lan-prozesua


---

- 1 eta 2. Prestatu krokis bat azalen eta bizkarrekoen neurriekin.
3. Moztu kartoiak
4. Estaltzeko materialean marraztu azalen eta bizkarrekoen kokalekua.
5. Materialak kolatu eta piezaz pieza prentsatu.
- 6-8. Lau albokoak estali eta prentsatu labur-labur, baita banan-banan ere.
9. Horixe litzateke estalkia ilustratzeko unea, hala badagokio.
10. Kolatu artekentzako bideak. Zentratu liburua azalen artean. Jarri bi hagatxo bideetan, ondo lotuta prezintuaz.
11. Prentsatu hagatxoak, argazkian ikus daitekeen bezala, hainbat orduz, artekak osatzeko.
- 12 eta 13. Kolatu babes-orriak eta prentsatu berehala, bakoitza bere aldetik. Estalkiak babes-orriaren bila joan behar du, eta ez alderantziz.





1




2



3




4



5



6



7



8



9



10




11



12



13




Arte-koadernaketa. Kartoizko azalak, margotutako larruarekin eta inkrustazio, erliebe eta gofratuekin. Artisau-paperezko babes-orriak, gofratuak eta marraztuak



Musika-partituren arte-koadernaketak. Kartoizko eta paperezko azalak, erliebeekin. Laserraz ebakitako pentagramak. Ageriko bizkarrak. Jositako koadernotxoak



Aipatutako obra. Bizkarra agerian. 180 graduko irekiera





Liburu baten azal gogorrak. Erliebeak, urrezko ogia eta tintak



Arte-koadernaketa. Larruzko estalkia. Zilarrezko ogiz eta tintaz egindako ilustrazioa



Bizkarrik gabeko azal soltez egindako koadernaketa. Bizkar kolatua. Larrua, papera, kartoi mehea eta kordela



Arte-koadernaketa. Azal gogorak, behilarruaz eginak. Koloregabetutako larruazala eta mosaikoa dituen ilustrazioa

## Eskartibanen gaineko koadernaketa japoniarra

Gure lan-esparruetan, hemen egiten den japoniar imitaziozko koadernaketa haren jostura-diseinuak oso ikusgarriak direlako miresten da, nire ustez. Alabaina, egiturari dagokionez, eragozpen handiak dituzte orriak ireki eta erabiltzerakoan.


Hemen proposatzen den diseinuak, eskartibanen gainean eginak, eragozpen horiek gainditzea du helburu, eta aldi berean edozein motatako josturak egiteko aukera ematen du.




## Lan-prozesua

---


1. Behin dagokion krokisa eginda, marraztu azalen posizioa estalki-paperaren gainean. Berehala prentsatu pieza bakoitza.
2. Lau aldeak estali eta prentsatu.
- 3 eta 4. Josi eskartibanak. Barrualdean, horietako bakoitzean, jarri betegarri bat, estuagoa (ikus xehetasuna irudian), hariaren lodiera bera edo handiagoa duena.
5. Estalkia.
6. Zulatu estalkiak kartoi gogorren artean eta josi.
- 7 eta 8. Liburuaren irekiera.
9. Azalen irekiera. 180 gradu ireki behar dira beren pisuagatik.




1



2



3




4



5



6



7



8




9

### **Babes-orriak eta errespetu-orriak**

Batzuetan funtzionalak eta inolako asmo artistikorik gabeak izan daitezkeen arren, babes-orriak oso garrantzitsuak dira liburuzaleen koadernaketan eta arte-koadernaketan. Zuriz eginak izan edo marraztuak, grabatuak, serigrafiatuak, idatziak, tindatuak, gofratuak eta abar, asko adieraz dezakete obraren testuinguruan.




Paperezko babes-orri bikoitzak, ur gaineko tinten transferentzia erabiliz margotuak. Neurrira egindako babes-zorroa.



Atzealdean, paperezko babes-orri bikoitzak, beltzak. Gainetik, babes-orri moztuak



Paperezko babes-orri gofratua eta margotua



Paperezko babes-orriak, bi zatitan (Doublure)



Larruzko markoetan ahokatutako babes-orriak



Belusezko eta paper margotuzko babes-orriak



Txantiloiz margotutako babes-orriak. Honen Larruzko mosaikoaren xehetasunak



Xehetasunak



Xehetasunak

## ESKARTIBANAK, NEURRIRA EGINDAKO ASMAKIZUNAK

Arazo zehatzei, konponbide zehatzak. Eskartibanak neurriko asmakizunak dira, koadernaketan diseinatzen direnak, obra baten askotariko elementuen artikulazioari edo joskintzari lotutako zenbait arazo konpontzeko. Beraz, artista diseinatzeko gai den adina irtenbide daude.

Zehatzago esanda, koadernatu nahi den liburuaren orrialde, lamina, objektu edo koadernotxoei bizkarrari dagokion alboan eransten zaizkien gehigarriak dira eskartibanak. Gehigarri edo eskartibana horiek askotarikoak izan daitezke, bai formei dagokienez, bai erabili beharreko materialei dagokienez. Eta horiekin osatzen da obraren bizkarra.

Liburua egiteko eta artikulatzeko beharrezkoak diren koadernatze-lanak (jostea, kolatzea, zerratzea, zulatzea, adibidez) eskartibanen gainean egiten dira.

Zerbait gaizki ateratzen bada edo guk espero bezalakoa ez bada, egindakoa desmuntatu eta behar dena aldatzen da. Ez da ezer gertatzen. Obraren segurtasuna ez da arrisku larrian jartzen. Horretarako daude eskartibanak.

Oso estimulagarria da liburuaren egiturarentzat ditugun aukerak ikertzea eta esperimentatzea, tradizioak eta errutinak ezarritako mugetatik harago joateko, beharrezkoa denean.

### “Arquilecturas” liburua. Eskartibanekin eta gontzekin asmatuz

Kasu honetan, erronka da ezohiko artista-liburu batean uztartzea artearen **esparru desberdinetako lanak, forma, bolumen eta pisu desberdinekoak**. Helburua da artikulazio eta mihiztadura mugikorrek gaitzea, sendoak baina erraz zabaltzeko modukoak, 360 graduko bira egiterainokoak, lanaren edukiak ondo ikusi ahal izateko.






## Lan-prozesua

1. Krokisa egindakoan (6. irudiak lagundu dezake), kolatu kartoizko laminak bi aldeetatik, paperarekin.
- 2 eta 3. Prestatu eskartibanak (hauek kartoizkoak dira). Kalkulatu lodiera, dagozkion xaflaren neurririk handienean oinarrituta, eransten diren objektuekin.
4. Lotu oihal kolatu batez laminak eta dagozkion eskartibanak.
5. Oihalaz estali eskartibana eta bidea.
- 6-9. Batu laminak gontzen bidez (kartoi mehekoak liburu honetan).
- 10 eta 11. Indartu bizkarra. Lan honetan tarlatana eta zetazko papera aukeratu dira, eta kolatu.






3



4




5



6



7



8



9




10



11

## Beste zenbait erronka, bilaketa eta irtenbide

Obra horiek oso objektu desberdinak dituzte: grabatu-xaflak, kartoiak, koadernotxoak, laminak... Paperezko, oihalezko eta beste material batzuetako eskar-tibanak eta gontzak erabiliz artikulatzen dira. Aurreko atalean erakutsitakoez bestelako irtenbideak dira.



## Hainbat eskartibana mota

1. Artisau-paperezkoak. Josita egoteko tolestua, kordelekin edo kordelik gabe.
- 2 eta 3. Oihalezkoa. Zulatuta josteko.
4. Artisau-paperezkoak. Tolesturarik gabe.
5. Kartoi-zko betelana, lodiera gehitzeko. Gontzekin lotzeko edo zulatuta josteko.

6. Oihalezkoa, kartoizko betegarriarekin. Zulatutakoa josiz lotzeko.


7. Laminaren kartoi berdinekoa. Gontzen bidez edo josita lotu daiteke.




1



2




3




4






5



6



7



## Eskartibanak lotzeko erak, liburuaren gorputza osatzeko

### Greziar erako josturaz lotzea


---



Obraren gorputza azalekin

### Kolatutako gontzekin lotzea

---



## Zulatutakoa josiz lotzea



### **BI GORPUTZEKO OBRAK, TRIPTIKOAK ETA KARPETA BEREZIAK**


Liburu objektuaren aldaera ugarietako batzuk. Espazioan flotatzen duten musika-notak, alfabeto bitxiak, ehundura eta kolore ezberdinetako artisau-paperak hiru dimentsioko lan bihurtuak, sekretuak gordetzen dituzten karpetak.



Formatu handiko diptikoa. Oihalez forratutako kartoia. Grabatua egiteko paperezko barnealdea. Pentagramak, laserrez ebakiak, airean flotatzen dute, altzairuzko hagatxo batetik zintzilik.



Art paperezko obrak dituen karpeta



Diptiko eskultura. Tolesgarria. Kotoizko paper-zuntza. Altzairuzko eta harizko armiarma-sarea. Letra moztuak. Aluminiozko liburuxka



Formatu handiko karpeta. Banbuzko paper-zuntza kartoi trinkoaren gainean




Laserraz ebakitako testuak



Diptiko irekia, art paperezko obrarekin







Miniatura. Diptikoa. Beruneko tipoak kartoi trinkoen gainean

## ERAIKUNTZA ATIPIKOAK ETA LIBURU ESKULTURAK

Izan ere, eraikuntza atipikoak dira. Ez dute zertan liburuak izan, ez eta horien formarik izan ere, ezta idazkirik eduki ere. Joan Brossak poesiari buruz egindako baieztapen zorioneko bat parafraseatuz, artista-liburua ideia bat da, hitzez edo hitzik gabe adierazten dena.



a, b, c, d, e... readymade objektu-liburu lagundua  
Eskolako arbelak, altzairuzko kiribil batekin  
artikulatua





Triptiko eskultura. Itsasoa aluminio tindatuan. Kartoizko eta oihalezko azala. Desmuntagarria



Liburu eskultura, ez irakurtzeko. Art paper. Kotoizko, banbuzko eta abakazko paper-zuntzak




Readymade lagundua. Pentsamenduaren itsasoetan barrena...



Diptikoa. Zurezko inprimatzeko tipoak  
Liburuxka, kartoi trinkoen gainean



Poema objektua. Liburuxka,  
letrak, alabrea



CDen koadernoa



Liburutegia. Berrerabilitako liburuak



Euskaraz argitaratutako lehen liburuaren edizioa.  
Bilkariz osatutako faksimilea



Metalezko liburu eskulturak



Liburu baten estalkia

Bilkaria



Sumertar buztinezko taularen edizio faksimilea



Neutrinozko liburu baterako oinarria



Liburu baten hastapena. Paper-zuntza



Letra-liburu eskultura. Inprimatzeko tipoak eta liburuxkak



Eskuizkribua.  
Papera

### MINIATURA LIBURUAK (5 x 5 x 5 cm-raino)

Ba hori, ahal den guztia eta ezinezkoa, baina miniaturan. Sormen erronka oso interesgarria da, gure errutinatik ateratzen gaituelako eta mugitzen ohituta ez gauden dimentsioetan lan egitera behartzen gaituelako. Gainera, ekoizpen-kostuak handiak ez direnez, erraza da ahaleginean arriskatzea.



Miniatura liburua. Liburu baten hondarrak



Bi-orrikoa. Miniatura. Abakazko zuntzak




Liburu eskultura. Miniatura. Liburuak, pergaminao, kordela



Readymadea miniaturan. Alabastroen liburu



Esatekorik ez



Miniatura. Diptikoa. Berunezko tipoak kartoi trinkoen gainean



Poesia objektuala. Liburu zahar baten hondakinak. Hobi komun baten irudia eta balak



Poesia objektuala. Miniatura. Berunezko tipoa eta letrak



Poesia objektuala. Miniatura



Poesia objektuala. Miniatura. Pergaminao, urrezko ogia eta pintura



Poesia objektuala. Miniatura.  
Taratana eta alanbrea



Liburu kuantikoa. Miniatura.  
Urrezko mintza eta kartoia

## ESKU HARTZEA, BERRERABILTZEA, BERRINTERPRETATZEA, TESTUINGURUTIK ATERATZEA...

Festa bat izan daiteke. Gure esku-hartzearen ondorioz zentzu berriak hartzen dituzten objektu eta liburuak. Irudikatutako egoerak errealitate bihurtzea. Itxura bikoitzak. Desegitekotan zeuden gauzei bigarren bizitza bat ematea. Amets egitea. Ausartzea. Ez dago mugarik...

Hemen erakusten diren lanak liburuak birziklatuz egin dira.



Esku hartutako liburua. Liburua,  
pankarta, kartoia eta limosna



Esku hartutako liburua. Sutatik  
erreskatatua



Poesia objektuala. Liburuak eta plaka elektronikoa



Liburu birziklatuen  
eskultura



Liburu eskultura



Liburu birziklatuak. Poema

## OBJEKTU POESIA – ARTISTA-LIBURUAK

Sarritan ezinezkoa da zehaztea non amaitzen den gauza bat eta non hasten den bestea, zer den eta zer ez den, eta nola elkartzen diren hori gertatzen denean. Mugak lausoak dira eta definizio formalak oso zailak, ez bada alferrekoak. Eta zer axola dio asmatzen badugu egin nahi duguna egiten?



Musu bat poesia objektualean. Paper-zuntzak



Poesia objektuala. Liburua eta eskularrua





Poesía objektuala. Miniatura.  
Liburuak eta kandela



Poesia objektuala. Liburu,  
beruneko tipoak eta konexio-  
kablea



Liburu eskultura. Artisau-papera eta letrak



Poesia objektuala. Liburu-orria,  
bastidorea, orratza eta haria



Poesia objektuala. Paper  
gaineko grabatuak



Poesia art paperren. Courbet gogoan

## KUTXAK, KUTXATILAK, ESTALKIAK


Bertan dauden liburuen neurrira egindako kaxak, estalkiak eta kutxatilak dira. Ez dago ezer hoberik denboran mantentzeko, segurtasunez lekualdatzeko eta lanak modu erakargarrian aurkezteko. Artisau-koadernaketako berezko teknikak erabiliz fabrikatzea komeni da.




### Lan-prozesua


---

**Lehenik eta ezinbestean: krokis bat egin behar da neurri guztiekin.** Zehaztasun handia behar da diseinuan. Orri honetan erakusten den marrazkia gida gisa erabil daiteke, nahiz eta jarraian adierazten den lan-prozesuan garatzen denaz beste-lako egitura partzial bat duen kutxa bat izan.




1. Marrazkian, kutxa baten zatiak kolatuta lotzeko teknika azaltzen da.
2. Kutxak eraikita, kolatu estaltzeko materiala (hemen artisau-papera aukeratu dut). Lehenik azalen kanpoaldea, gero albokoak.
- 3 eta 4. Eraikuntzaren xehetasun bat.
- 5 eta 6. Izkinetan papera ebakitzeko eta kolatzeko modua.
- 7 eta 8. Forratu oihalez bizkarraren barrualdea.
9. Paperez forratutako kartoi batez estali bi kutxen hondoa.
10. Kutxa amaitua, barruan duen obren karpetaekin.






9

10



Estalki artikulatua duen kutxa. Kartoia, ahuntz-larru gofratuak eta oihalak



Babes-kutxa (eta liburua). Oihalez forratutako kartoia



Kutxatila tolesgarria eta babes-kutxa. Kartoiak, koadernatzeko oihala eta satina



Babes-kutxa. Kartoiak eta koadernatzeko oihala



Liburua, gainazala eta kutxatila. Kartoiak, larrua eta koadernatzeko oihala



## Kutxatila zorroa

Estalkietan kartoizko egitura zurruna erabiltzen da, eta kutxatila osatzeko lodiera apur bat duen karto mehe bat. Ez da atal honen hasieran agertzen den kutxa bezain erresistentea, baina, trukean, errazagoa da egiten.




### Lan-prozesua

---

- 1 etik 3ra. Azala liburuaren neurrira prestatzea.
4. Arrailak egin. Irudian makina txiki bat agertzen da, baina eskuz ere egin daiteke lan hori.
5. Beharrezko diren arraildurak egin.
6. Kartoi mehe bera, baina izkinetan ebakidurak eginda, saihesteko izkinok bata bestearen gainean gelditzea zorroa ixtean.
- 7 eta 8. Zorroa tolestua, liburura egokitua.
9. Liburua barruan dagoela, itsatsi kartoi meheko zorroa liburuaren azalean, kola-puntuekin.
10. Liburua amaituta eta itxita.



1



2




3




4




5



6



7



8



9



10

### **LIBURUAREN EBAKIN MARGOTUAK, MARRAZTUAK, ESTALIAK**

Eta idatziak, zizelkatuak, urrezko ogiarekin urreztatuak, serigrafiatuak, ur gaineo tinten transferentziaren bidez margotuak eta abar. Aspaldiko baliabideak dira horiek. Ondorio praktikoetarako, liburuaren ebakinak, ondo prentsatuak egonez gero, paper zuri bat bailiran landu daitezke.



Liburuaren ebakina urrezko ogiz urreztatua eta zizelkatua



Ebakin txantiloidunak eta gordekinen gaineko pintura



Ur gaineko tinten transferentziarekin margotutako ebakina



Ebakina, mehetutako ahuntz larruaz estalia





Urdinez margotutako ebakinak

## Erreferentzia bibliografikoak

- ANTÓN, José Emilio y SANZ MONTERO, Ángel. El libro de los libros de artista. L.U.P.I., Sestao, Bizkaia, 2012.
- ARRABAL, Fernando. Kaléidoskopies 1964–2000. Musée Baron Gérard. Bayeux, France, 2000.
- ART ABSTRAIT ET CONTEMPORAIN. L'abstraction autor du monde. Space Tajan, París, 2005.
- ARTE DESDE 1900. MODERNIDAD, ANTIMODERNIDAD, POSMODERNIDAD. Ediciones Akal, España, 2006.
- ARTISTA-LIBURUA / El libro de artista. Museo de las Encartaciones, 1998-99, Bizkaia.
- Arts et Métiers du livre. Editions Faton. Lille, France, 2004.
- BÁEZ, Fernando. Los primeros libros de la humanidad. Fórcola, Madrid, 2013.
- BARBÉ, Juan. Las plantas y su papel. HiFer, Asturias, 2017.
- BAUHAUS archiv / DROSTE, Magdalena. Bauhaus 1919–1933. Taschen, 2006.
- BERGER, John. Modos de ver. Gustavo Gili, Barcelona, 2016.
- BLOM, Philipp. 2004. Encyclopédie. Editorial Anagrama, Barcelona, 2007.
- BOOK ARTS IN THE USA. Center for Book Arts, 1990.
- BRUGALLA, Emilio. En torno a la encuadernación y las artes del libro. Diez temas académicos. CLAN. Madrid, 1996.
- C. DANTO, Arthur. Después del fin del arte. El arte contemporáneo y el linde de la historia. Paidós Estética, Barcelona, 2018
- CARRIÓN, Ulises. El arte nuevo de hacer libros. Libros de Artista, Tomo I. Turner, México, 2003.
- CARRIÓN, Ulises. Las obras-libro revisitadas. Second Thoughts, Void Distributors, Amsterdam, 1980.
- CELANT, Germano. El libro como obra de arte 1960-1972. Cuenca, 1992.
- CHILLIDA. Fundació Joan Miró, 2003-2004, Barcelona.
- CHRISTIE, Alix. El discípulo de Gutenberg. Rocabolsillo, Barcelona, 2016.
- CODEX, LIBER, LIBRO. Agudo, Enrique, coordinación editorial, 2005
- CORREDOR-MATHEOS, Josep / OLIVER, Conxita / ALIBAU, Salvador. Alibau, obra, i técnica de la fibra de cel.lulosa. Arola, Tarragona, 2000.
- Criterios de intervención en la restauración de libros y documentos. Gobierno de Navarra. Pamplona, 2007.
- De los incunables al siglo XVIII. Fundación G. S. R. Madrid, 1994.
- DEMPSEY, Amy. Estilos, escuelas y movimientos. Blume. Barcelona, 2002.

- DRUCKER, Johana. El libro de artista como idea y forma. Drucker, J., *The Century of Artists' Books*, Gramary Books, Nueva York, 1995.
- DUCHAMP, Marcel. Escritos. Edición dirigida por José Jiménez. Galaxia Gutenberg. Barcelona, 2019.
- ECO, Umberto y CARRIÈRE, Jean-Claude. Nadie acabará con los libros. Lumen, Barcelona, 2010.
- El libro como objeto de arte. I y II Congresos Nacionales sobre Bibliofilia, Encuadernación artística, Restauración y Patrimonio Bibliográfico. AFEDA. Cádiz, 1999 y 2004.
- ENCICLOPEDIA DE LA ENCUADERNACIÓN. Ocho autoras y autores. Ollero & Ramos, Madrid, 1998.
- ESCOLAR, Hipólito. Historia del libro español. Edit. Gredos, Madrid, 1998.
- ESCOLAR, Hipólito. Historia universal del libro. Fundación Germán Sánchez. Ruipérez, Madrid, 1993.
- ESCOLAR, Hipólito. Y varios colaboradores. Historia ilustrada del libro español. Los manuscritos. Fundación Germán Sánchez Ruipérez, Madrid, 1993.
- F. WALTHER, Ingo / WOLF, Norbert. Obras maestras de la iluminación. Edi. Taschen, 2003.
- FERRERO, Ernesto / MAGNETTI, Daniela. LIBERazione. Collezione Aprile di Cimia, Italia, 2001.
- GARRIGUE, Marie / FATON, Louis. La reliure, patrimoine artistique. Lille 2004. Edition Faton. France.
- GARRIGUE, Marie / FATON, Louis. Reliures sans frontières. Art & Métiers du livre. Editions Faton. Limoges, France, 2006.
- GEORGE, Andrew. La epopeya de Gilgamesh. Penguin, Barcelona, 2015.
- GERBER, Verónica. Conjunto vacío. Pepitas de Calabaza, Logroño, 2017.
- GLAZOVA, Anna. Lissitzky en la Alemania de Weimar, 2016.
- GOMBRICH, E.H. La historia del arte. Debate. Madrid, 1997.
- GOMPERTZ, Will. ¿Qué estás mirando? 150 años de arte moderno. Taurus. Madrid, 2013.
- HARO GONZÁLEZ, Salvador. TREINTA Y UN LIBROS DE ARTISTA. Una aproximación a la problemática y a los orígenes del libro de artista editado. Fundación Museo del Grabado Español Contemporáneo. Marbella, 2013.
- HELLION, Martha. El origen del libro de artista moderno. Ulises Carrión: ¿mundos personales o estrategias culturales? Tomo I. Turner, México, 2003.
- HELLION, Martha. Ulises Carrión. Una semblanza. Ulises Carrión: ¿mundos personales o estrategias culturales? Tomo II. Turner, México, 2003.
- IPERT, Sthepane / ROME-HYACINTHE, Michèle. Restauración de libros. Fundación G.S.R. Madrid, 1989.
- ITINERARIOS BROSSIANOS. Fundació Joan Brossa, Barcelona, 2019.

- JOAN BROSSA o la revuelta poética. Fundación Joan Miró, Barcelona, 2001.
- KOSUTH, Joseph. El arte después de la filosofía, 1969.
- LAMP. Cuaderno sobre el libro. Grupo de Investigación de la Universidad Complutense de Madrid, 2011.
- LIVRES D'ARTISTES RUSSES ET SOVIÉTIQUES 1910-1993. Exposition julio-octubre 1993. Espace Vézère, 19140 Uzerche, France.
- LIVRES D'ENFANCES. Pays-Paysage / Centre National du Livre d'Artiste, 1998.
- LOS LIBROS DE ARTISTA DE CHILLIDA. Biblioteca Nacional, Madrid, 2007.
- MAFFEI, Giorgio. ¿Qué es un libro de artista? Santander 2014–2015. Archivo Lafuente. Ediciones La Bahía. Santander, 2015.
- MARTÍNEZ DE SOUSA, José. Pequeña historia del libro. Ed. Trea, Gijón, Asturias, 2010.
- MC. CLEARY, John / CRESPO, Luis. El cuidado de libros y documentos. CLAN Editorial. Madrid, 1997.
- MÆGLIN-DELCROIX, Anne. Esthétique du livre d'artiste 1960/1980. Édit. Jean-Michel Place/ BNF. París, 1997.
- MÆGLIN-DELCROIX, Anne. Un produit de série qui soit de premier ordre. 1st Artist Book International. Paris, 1994.
- MORENO VILLAREAL, Jaime. LIMINAR. Ulises Carrión: ¿mundos personales o estrategias culturales?. Tomo II. Turner, 2003.
- NAGEL, Andrés. Fuera de servicio. Donostia, 1999.
- NAVARRO SAGRISTÁ, Joaquín. Temas de la fabricación del papel. Edit. Marfil, Alcoy, 1970.
- NOAH KRAMER, Samuel. La historia empieza en Sumer. Alianza Editorial, Madrid, 2016.
- NÓMADAS Y BIBLIÓFILOS / NOMADAK ETA LIBURUZALEAK. Concepto y estética en los libros de artista. Diputación Foral de Gipuzkoa. Erakusketa-exposición, julio-octubre 2003, Donostia.
- O'BRIAN, Patrick. Picasso. Noguer. Barcelona, 1982.
- OTEIZA, Jorge. Laboratorio experimental. Fundación Museo Oteiza. Alzuza, Navarra, 2008.
- PICAZO, Gloria. El libro: memoria del mundo. 10 años de Grabado y Edición de Arte en la Escuela de Arte de Oviedo, 2008.
- RADIC, Sally. El cincel y la palabra. Catálogo de la exposición Hitza Zizel / El cincel y la palabra. Sala Kubo Kutxa. Donostia, 2006.
- RASULA, Jed. Dadá. El cambio radical del siglo XX. Anagrama, Barcelona, 2016.
- SARMIENTO, José Antonio. Libros de artistas, gasolineras y agentes de las SS. - Llibre de les Meravelles. Valencia, 1997.
- SATUÉ, Enric. Arte en la tipografía y tipografía en el arte. Siruela, Madrid, 2007.

- Sobre libros. Reflexiones en torno al libro de artista. Sendemà Edit. Valencia, 2009.
- TÀPIES, Antoni. Desde el interior 1945–2011. Fundació Antoni Tàpies. Barcelona, 2013.
- TÀPIES, Antoni. Memoria personal. TÀPIES. En perspectiva. MACBA, Barcelona, 2004.
- UGALDE, Martín de. Hablando con Chillida, escultor vasco. Txertoa, Donostia, 1975.
- VALCÁRCEL MEDINA, Isidoro. El sustantivo es “libro”. Museo San Telmo, Donostia, 2019.
- VALLEJO, Irene. El infinito en un junco. Siruela, Madrid, 2019.
- WAGENSBERG, Jorge. La rebelión de las formas. Tusquets Editores. Metatemas 2004.

# KOADERNATU EZIN DEN IA EZER EZ DAGO

## Tailerreko ariketekin

Bizikleta bat ere bai?, esaten zidan lagun batek txantxetan. Bada, erantzuna baiezkoa da, sinesgaitza badirudi ere. Zaila, bai, eta zentzugabea seguruenik, eta garestia, baina guztiz posiblea. Hori da kontua.

Hemen proposatzen ditudan ariketa praktikoetan, koadernatutako lan bat modu jakin batean diseinatu eta egiteko eta irizpide batekin aukeratzen jakiteko kontuan hartu behar diren oinarritzko alderdiak bakarrik hautatu ditut, nire esperientziari jarraituz.

---

**Egilea Luis Barrios (Lumar)**

**Maketazioa: Alfredo Gil**

**Portada diseinua: Ainara Landaberea**

**Itzulpena: Ainhoa Kortaxarena**

